

KOIUNTURAZ

69. zkia. – 4. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA


LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	13
Ekoizpen jarduera	14
Eskariaren osagaiak	18
Kanpo saldoa	21
Lan merkatua.....	25
Prezioak, kostuak eta soldatak	31
Arlo publikoa.....	35
Finantza arloa	38
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	43
Testuinguruarentzako aurreikuspenak.....	43
EAErako aurreikuspenak	49

LABURPENA

2009ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiaren barne produktu gordinak beheranzko joerari jarraipena eman zion, nahiz eta erritmoa nabarmen leundu zuen. Hain zuzen ere, urte arteko aldakuntza tasa %-0,4an kokatu zen, espainiar ekonomiak izan zuen emaitza berean eta Europako batez bestearen zertxobait gaineretik. Hala eta guztiz ere, EAEko barne produktu gordinak marraztu duen norabidea garatutako ekonomia nagusiek erakutsi duten joeratik desbideratu da, azken hauek urte arteko tasa negatiboak murriztu dituztelako. Beraz, nolabaiteko atzerapena hautematen da krisitik irteteko urratsetan, EAEko ekonomiak 2008ko bigarren erdian emaitza hobeak lortu zituelako eta horrek denbora luzeagoz atzeraldian sartzea saihesten ahalbidetu zuelako.

EAEko ekonomia. BPGren bilakaera.

1. irudia



Iturria: Eustat.

Hiruhilabete arteko tasetan, une jakin bateko bilakaera hobeto irudikatzen baitu, EAEko ekonomiak oso susperraldi itxaropentsua lortu du, zeren eta atzean utzi baititu aurreko hiru

hiruhilekoetan jaso zituen beherakada handiak egonkortasunerantz hurbiltzeko. Aurreikusten den bezala hobekuntza erritmo horrek hurrengoetan ere jarraitzen badu, atzeraldiaren irteera 2010eko lehen hiruhilekoan gauzatu daiteke. Garatutako herrialde nagusiek urrats hori eman dute dagoeneko eta hiruhilabete arteko tasa positibotan daude, salbuespena Espainia delarik.

Oro har, ekonomia behinenek urrats garrantzitsuak eman dituzte krisitik irteteko. Garatutako herrialdeen artean, AEBek lortu duten bultzada nabarmendu behar da, hiruhilabete arteko tasan %0,6 hazi baitzen. Horri esker, urte arteko jaitsiera 1,2 puntutan murriztu zuen. Orobat, azpimarratzekoa da Japoniaren bilakaera, aurreko hiruhilabeteko urte arteko beherakada puntu luze batean gutxitu duelako eta bi hiruhilekoz jarraian hiruhilabete arteko tasa positiboak jaso dituelako. Tamaina txikiagokoa izan da, baina adierazgarria hau ere, Europako herrialdeen multzoak eskuratu duen hobekuntza, urte arteko tasa %-4,3an kokatu baitu, aurreko datuaren zazpi hamarren beherago. Eremu hauek izan duten hobekuntzaren giltzak gobernuek eta moneta agintariek ekonomia sustatzeko abiarazi dituzten neurriak, finantza merkatuetako egonkortasuna eta nazioarteko merkataritzaren suspertzea dira. Hala ere, herrialde horietako barne eskariek bilakaera apala erakusten jarraitu dute, hala inbertsioaren atalean nola kontsumo pribatuarenean.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
Europar Batasuna 27	2,9	0,8	0,6	-1,8	-4,9	-5,0	-4,3
- EAE	4,1	1,9	1,9	0,3	-2,5	-3,6	-4,0
- Espainia	3,6	0,9	0,5	-1,2	-3,2	-4,2	-4,0
- Alemania	2,5	1,3	0,8	-1,8	-6,7	-5,8	-4,8
- Frantzia	2,3	0,4	0,1	-1,7	-3,5	-2,9	-2,4
- Italia	1,6	-1,0	-1,3	-2,9	-6,0	-5,9	-4,6
- Erresuma Batua	2,6	0,6	0,3	-2,0	-5,0	-5,5	-5,1
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,1	0,4	0,0	-1,9	-3,3	-3,8	-2,6
Japonia	2,4	-1,2	-1,4	-4,4	-8,6	-6,0	-4,7
Txina	13,0	9,0	9,0	6,8	6,1	7,9	8,9
India	9,3	7,3	7,6	5,3	5,8	6,1	7,9
Errusia	8,1	5,6	6,2	1,1	-9,5	-10,9	-9,4
Brasil	5,7	5,1	7,1	0,8	-2,1	-1,6	-1,2


Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, berriro nabarmendu da Txinaren bultzada, bigarren hiruhilabeteko urte arteko tasa puntu oso batean hobetu duelako eta lehen bederatzi hilabeteetako batez bestea (%7,6) 2009an %8ko gehikuntza lortzeko helburutik oso hurbil kokatu duelako. Bertako gobernuak 2008ko azken hilabeteetan eta 2009ko hasieran lurralde horretan agertu ziren ahultasuneko zantzuei eman zien erantzuna baliagarria izan da kontsumoa eta barne inbertsioa sustatzeko, baina baita nazioarteko merkataritza suspertzeko ere. Beste muturrean, lehengaiak atzerrian saltzearen mendean dauden herrialdeak, hala nola Brasilek eta, neurri handiagoan, Errusiak, urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten hirugarren hiruhilekoan, baina aurrekoan izan zituztenak baino hobeak. Azkenik, Indiak oso nabarmen areagotu zuen aurreko hiruhilekoetan lortutako hazkunde erritmoa eta urte arteko tasa %7,9an kokatu zuen.

Munduko ekonomia. BPGren bilakaera (ezkerrean) eta nazioarteko merkataritza.

2. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakuntzaren datuak erabilia.


Garatutako eta garapen bidean dauden herrialdeen konbinaketak iradokitzen du munduko ekonomiak beste urrats bat eman duela suspertzeko bidean eta gutxi gorabehera puntu batean murriztu duela aurreko hiruhilabeteko jaitsiera. Hala ere, susperraldi hori ez da arriskurik gabea. Alde batetik, moneta eta politika agintariak ekonomiari eman dioten bultzada ezin da eperik gabe mantendu, baina goizegi kentzeko arriskua ere badago, susperraldiaren sendotzea galaraziz. Beste aldetik, finantza sisteman sortu ziren tentsioak leundu dira azken hilabeteetan eta, horren ondorioz, eszenategi baikorrak itzultzen ari dira, baina finantza arloa oso urrun

dago behar duen onbideratzetik. Zaindu beharreko beste alderdi bat lehengaien salneurrien bilakaera da, dagoeneko goranzko norabidea berreskuratu baitute. Izan ere, petrolioaren prezioa eurotan %60 garestitu da urtea hasi zenetik, baina ez dirudi inflazioan igoera garrantzitsurik eragingo duenik, oraingoz eskaria apal samarra delako.

Europar Batasunak aurrean izango duen beste mehatxu bat euroak dolarraren aldean lortu duen indarra da, barne eskaria, lehenago adierazi den bezala, oso ahul dagoen une batean esportatzea zailagoa egiten duelako. AEBetako ekonomia krisitik bizkorrago irten izana eta 2010. urterako aurreikuspen hobeak izatea ez da nahiko izan herrialde hartako txanponaren balioa areagotzeko.

Petrolioaren salneurria (ezkerrean) eta truke tasa

3. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Ahultasun orokorreko baina emaitza negatiboak gero eta leunagoko testuinguru horretan, EAEko ekonomiak esparru ekonomiko behinenak ez bezalako joera erakutsi zuen hirugarren hiruhilekoan, zeren eta, urte arteko tasatan, beheranzko joera areagotu baitzuen %-4,0ko tasa jaso arte. Irakurketa positiboagoa da hiruhilabete arteko tasak aztertzen badira, beraietan agerian geratzen baita atzeraldiaren une gogorra aurtengo lehen hiruhilekoan bizi zela eta ondorengo epealdietan uzkurdua hori leundu dela. Hala ere, garatutako beste herrialde batzuetan ez bezala, oraindik ez da tasa positiborik lortu.

Ekoizpenaren ikuspegitik, eta urte arteko tasetara itzulita, industria da oraindik krisia gehien pairatzen ari den arloa, balio erantsiaren beherakada %11,3ra areagotuta. Okertze garrantzitsu hori ez dator bat sektorearen produkzioak (IPI) jaso dituen balioekin, dagoeneko jaitsierak egonkortu baititu eta susperraldi txiki baten lehen zantzuak erakusten baititu. Enpresarien iritziek ere zailtasunak leuntzen ari direla iradokitzen dute. Izan ere, industria giroaren indizeak martxoan jaso zuen bere baliorik txikiena eta harez geroztik hilabetez hilabete hoberantz egin du, ekoizpenaren joeraz duten iritzia horren ezkorra ez delako.

Eraikuntzak, berriz, hiru hamarren hobetu zuen bere urte arteko tasa, baina oraindik oso maila negatiboan dago. Datuaren hobekuntza obra zibilaren bilakaeratik datorrela ematen du, administrazioaren bultzadari esker. Lizitazio ofizialeko datuek norabide horretan seinalatzen dute oso garbi, baina etxegintzaren esparruko adierazleek oraingoz ez dute suspertzeko zantzurik eskaintzen. Zerbitzuek beherakada egonkortu dute eta %0,6 gutxitu dute beren balio erantsia. Merkatuarekin lotura zuzena duten zerbitzuek hamarren bateko hobekuntza izan dute eta %-1,8an kokatu dira, turismoaren bultzada txikiari eta salmenten jaitsiera leunagoari esker. Aitzitik, merkaturakoak ez diren zerbitzuek ez dute lortu azken lau hiruhilabeteetako gorakada biziei eutsi eta %5,2ra mugatu dute gehikuntza tasa. Zenbateko hori oso altua da oraindik, baina aurreko datuekin alderatuta puntu bat baino gehiago moteldu du erritmoa.

Eskariaren ikuspegitik, hiruhilabetearen ezaugarriak nabarmenena barne eskariaren susperraldia da, kanpo saldoaren ekarpena txikiagoa izan zen bitartean. Izan ere, EAEko barne eskariak beherantz egin zuen berriro (%-4,3), baina aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Kontsumo pribatuak ere hiru hamarrenetan gutxitu du bere jaitsiera, nahiz eta familiek aurrezteko joera bizia erakutsi duten, gastatzeko ahalmena ez baita tamaina berean murriztu. Kontsumo publikoa zorpetze garrantzitsuko egoera batera egokitzen ari da eta ekonomia bultzatzen jarraitzen duen arren, zertxobait motelago ari da hazten. Hobekuntza begi bistakoa da inbertsioaren bilakaeran (%-8,3), aurreko hiruhilabeteko beherakada zortzi hamarrenetan murriztu duelako. Kanpo merkataritzan, esportazioen eta inportazioen jaitsierak leundu direla hauteman da, bereziki inportazioak. Beraz, kanpo arloaren ekarpena puntu erdi batera murriztu da.

Azkenik, kontu ekonomikoen hiruhilabeteko estimazioak adierazten du enplegua zertxobait hobetu dela, bigarren hiruhilekoan %4,0 galtzetik hirugarrenean %3,8ra igaro delako. Eraitza horrek iradokitzen du lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna negatiboa, bi hamarren ingurukoa, izan dela hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan lau hamarren irabazi ziren bitartean. Edozein modutan, oso aldakuntza txikiak dira eta oso urrun daude aurreko krisi garaietan lortzen ziren datuetatik, zeinetan langileen iraitzeak maizago erabiltzen baitziren. Gaur egun, ahal den neurrian, langileen kontratuei eusteko ahalegina hautematen da.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	4,2	1,9	1,9	0,3	-2,5	-3,6	-4,0
Enplegua	2,8	1,0	0,6	-0,6	-2,9	-4,0	-3,8
Ekoizkortasun irabaziak	1,4	0,9	1,3	0,9	0,4	0,4	-0,2
Langabezia tasa	3,3	3,8	3,5	4,6	7,7	7,8	8,3
Kontsumoko prezioen indizea	2,8	4,1	4,8	2,8	0,9	0,0	-0,3

Iturria: Eustat eta INE.

Datozen hiruhilekoei begira, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak barne produktu gordinaren urte arteko tasen jaitsierak hirugarren hiruhilabetekoak baino txikiagoak izango direla aurreikusten du. Hain zuzen ere, 2009ko batez bestea %-3,4an kokatuko da eta 2010ean gehikuntza tasa positiboak, baina txikiak, lortzeko aukera zabaldu da. Urte arteko tasa positiboak datorren urteko hirugarren hiruhilekoan iritsi daitezke.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2009		2010		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	-3,4	0,1	-3,5	-1,9	-0,3	0,8	1,6
BPGren deflatoarea	0,3	1,3	0,2	0,9	1,1	1,6	1,6
Enplegua	-3,5	-1,3	-3,3	-2,3	-1,5	-1,1	-0,3
Langabezia tasa	8,2	9,5	8,8	9,2	9,4	9,6	9,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizpenaren hobekuntza horrek ez du enplegu berririk ekarriko eta 2010. urte osoan lanpostuak galduko direla aurreikusten da, baina hiruhilabetez hiruhilabete galera gero eta txikiagoa izango da. Beraz, langabezia tasa igoko da eta %10era hurbilduko da BJaren terminoetan. Azkenik, prezioetan ez da tentsiorik aurreikusten, eskariaren suspertzea oso astiro gauzatuko delako. Hala ere, inflazioa gaur eguneko mailetatik gorago kokatuko da.

EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua

Aurtengo bigarren hiruhilekoan, norabide aldaketa gauzatu zen ekonomiaren zikloan eta Alemaniak, Frantziak eta Japoniak hiruhilabete arteko tasa positiboak lortu zituzten, nazioarteko merkataritzaren bultzadari esker. 2009ko hirugarren hiruhilekoak susperraldiaren hasiera baieztatu du. Finantza merkatuetako normaltzeak, stocken berrosatzeak, garapen bidean dauden herrialdeei lotutako nazioarteko merkataritzaren hobekuntzak eta gobernuek kontsumoa sustatzeko ezarri dituzten egitarauak bultzada garrantzitsu bat eman diote ekonomia jarduerari.

Garatutako ekonomiek, oro har, hobetzeko joera garbia erakutsi zuten. Analisia hiruhilabete arteko tasetan egiten bada, hobekuntza hori are garbiagoa eta sendoagoa da. Izan ere, Europako ekonomia nagusi guztiek -salbuespenak Espainia eta Erresuma Batua direlarik- Japoniak eta AEBek hiruhilabete arteko tasa positiboak jaso zituzten. Urte arteko aldakuntza tasak, ordea, ez zuen horren emaitza ona eskaini, baina jaitsiera erritmoa leundu zen herrialde horietako askotan.


Garapen bidean dauden herrialdeen multzoak aurreko hilabeteetan lortu zituzten hazkunde garrantzitsuak areagotu zituzten eta krisi honetatik garatutako herrialdeak baino lehen eta sasoi hobean irten direla egiaztatu zuten. Asia izan zen, berriro, eremu horren aitzindaria, Txinaren jarduerak lortu zuen bultzada indartsuari esker, urte arteko tasan aurreko hiruhilabeteak emaitza puntu oso batean gainditu zuelako. Gobernuaren gastu erraldoiek eta bankuei emandako kredituak %9,0ko hazkunde tasara hurbiltzea ahalbidetu zuten. India, berriz, %7,9 hazi zen.

Munduko inflazioak behera egin zuen eta kontsumo prezioen aldakuntza tasak negatiboak izan ziren herrialde askotan. Hala eta guztiz ere, azaroko datuek aldagai hori zenbaki positiboetan kokatu dute berriro, hala Europar Batasunean nola AEBetan. Lan merkatua kaltetuta atera zen berriro. Langabezia tasak oso bizkor igo ziren Europako herrialde gehienetan, baina bereziki Espainian, non %20aren ingurura iritsi baitziren, eta, neurri txikiagoan, Frantzian. Atlantikoaren beste aldean antzeko bilakaera jaso zen, baina bertako tasak ez ziren horren bizkor igo. Hala eta guztiz ere, langabezia tasak %10 gainditu zuen AEBetan urrian, 1983tik inoiz jaso den mailarik gorena baita.


Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Hiruhilabete arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Txina, munduko hirugarren potentzia baita, krisitik atera dela egiaztatu zuen hirugarren hiruhilekoan, %8,9ko hazkunde tasa bat lortuta. Gehikuntza tasa hori aurreko hiruhilabetekoa baino puntu bat altuagoa izan zen eta urte arteko tasan hazkunde positiboa izan zuten munduko potentzia gutxietako bat izan zen. Txinako gobernuak sustatu zituen inbertsio publikoko eta kreditu errazeko egitarauak kontsumoa eta inbertsioa bultzatu zituzten, eta esportazioen ahultasuna soberan konpentsatu zuten. Txinako salmentek tasa negatibotan jarraitu zuten arren, nolabaiteko suspertzea hauteman zen salmentetan, esportazioen kopurua irailean %15,0 murriztu baitziren; oraindik asko izanda ere, gogoratu behar da urtariletik abuztura bitartean, batez beste, %22 jaitsi zirela. Inflazioan ez zen inolako presiorik nabaritu eta kontsumoko prezioen indizea, urrian, bederatzi hilabetez jarraian aldakuntza tasa negatibotan kokatu bazen ere, hilabetez hilabete beherakada txikiagoa izan denez balizko deflazioaren arriskua gutxitu da.

Ekonomia garatuen artean, G7 delko taldea, Alemaniak, Kanadak, AEBek, Frantziak, Italiak, Japoniak eta Erresuma Batuak osatua baita, %0,7 hazi zen hiruhilabete arteko tasan uztaila eta iraila bitartean. Horrek lehen gehikuntza tasa positiboa ekarri zuen lau hiruhilekoz segidan beherakadak eta beste batean egonkortasuna jaso ondoren. Hala ere, ekonomiaren jardura ez zen bizitasun berberaz suspertu herrialde guztietan, batez ere analisisia aurreko urteko hiruhilabete berarekin alderatuta egiten bada.

Hain zuzen ere, eta analisisia urte arteko hazkunde tasetan eginda, estatubatuar ekonomia %-2,6 jaitsi zen, beste tasa negatibo bat jaso, baina aurrerapauso azpimarragarria da aurreko hiruhilekoan izan zuen gutxieneko balioaren aurrean. Kontsumo pribatuaren suspertzeak, zerga bidezko pizgarriei eta interes tasak zeroaren inguruan mantentzeari esker lortuta, etxebizitzetan eta ekipamenduan eginiko inbertsioaren jaitsieran nolabaiteko egonkortasuna egoteak eta esportazioen hobekuntzak atzeraldiaren une latzena atzean geratu dela iradokitzen dute. Langabezia tasak gorantz egin zuen hilabetez hilabete eta urrian %10,2ra iritsi zen. Tasa horrek esan nahi du 16 milioi lagun inguru daudela lanik gabe herrialde horretan. Azkenik, barne eskariaren ahultasunak inflazioa oso apal mantendu zuen eta urrian %-0,2an kokatu zen. Hala ere, azaroan tasa hori %1,8ra igo da.

Japoniak hobekuntzako zantzuak erakusten jarraitu zuen eta horrela geratu da jasota bere barne produktu gordinean, aldakuntza tasa negatibotan segitu arren, galdutakoaren zati bat berreskuratu zuelako. Kontsumo pribatuaren gehikuntza, gobernuaren pizgarrien ondorioz, eta esportazioen nolabaiteko hobekuntza izan ziren susperraldi horren oinarriak. Lan merkatuak hobera egin zuen eta langabezia tasa %5,5era jaitsi zen. Barne eskariaren eta enpleguaren bizitasun ezak deflazioaren joera areagotu zuen eta hirugarren hiruhilekoan KPI indizea %-2,2an jarri zen, serie hau 1971etik hasi zenetik inoizko jaitsierarik handiena baita.

Esportazioak gero eta gehiago igotzeak eta izendatu diren gobernu guztiek moneta eta zerga esparruetan hartu dituzten neurri garrantzitsuek Europako ekonomia nagusiak suspertzen hastea eta jaitsieraren tamaina murriztea lortu zituzten. Alemaniak, Frantziak eta Italiak lortu zuten hobekuntza balio handikoa izan zen Europar Batasunerako, aurtengo hirugarren hiruhilekoan %-4,3ko aldakuntza jaso baitzuen BPGan, aurreko hiruhilabetean izandako gutxieneko datuaren aldean zazpi hamarreko hobekuntza delako. Hiruhilabete arteko tasan, lehen hazkunde positiboa lortu zen hamabost hilabetez jarduera murriztu ondoren.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala							
AEB	2,1	0,4	0,0	-1,9	-3,3	-3,8	-2,6
Japonia	2,4	-1,2	-1,4	-4,4	-8,6	-6,0	-4,7
EB - 27	2,8	0,9	0,6	-1,8	-4,9	-5,0	-4,3
- Alemania	2,5	1,3	0,8	-1,8	-6,7	-5,8	-4,8
- Frantzia	2,3	0,4	0,1	-1,7	-3,5	-2,9	-2,4
- Erresuma Batua	2,6	0,7	0,3	-2,0	-5,0	-5,5	-5,1
Inflazioa							
AEB	2,8	3,8	5,3	1,6	0,0	-1,2	-1,6
Japonia	0,0	1,4	2,2	1,0	-0,1	-1,0	-2,2
EB – 27	2,4	3,7	4,3	2,9	1,6	0,9	0,4
- Alemania	2,3	2,8	3,3	1,7	0,8	0,3	-0,4
- Frantzia	1,6	3,2	3,6	2,0	0,7	-0,3	-0,5
- Erresuma Batua	2,3	3,6	4,8	3,9	3,0	2,1	1,5
Langabezia tasa							
AEB	4,6	5,8	6,1	6,9	8,1	9,3	9,6
Japonia	3,9	4,0	4,0	4,0	4,5	5,2	5,5
EB – 27	7,1	7,0	7,0	7,5	8,2	8,8	9,1
- Alemania	8,4	7,3	7,2	7,1	7,3	7,6	7,6
- Frantzia	8,3	7,7	7,9	8,3	8,9	9,4	9,8
- Erresuma Batua	5,3	5,6	5,8	6,3	7,0	7,7	7,8

Iturria: Eurostat eta ELGE.

Frantzian eta Alemanian, ekonomia sustatzeko gobernuak martxan jarri zituzten egitasmoek kontsumo pribatua eta inbertsioa piztea lortu zuten, eta oraindik tasa negatibotan egon baziren ere, joera aldatzen hasi zen eta zertxobait egin zuten hobera. Orobat, Asiako ekonomien

hazkunde indartsuak esportazioak areagotu zituzten, aurreko hiruhilabetearen aldean BPGren hobekuntza nabarmena eraginez. Erresuma Batuak, ordea, ez zuen emaitza onik lortu. Jardueraren beherakada leundu bazen ere, kontsumoak ezin izan zuen suspertu eta inbertsioa hobekuntzako joera garbi bat erakustetik oso urrun geratu zen. Hiruhilabete arteko tasetan, herrialde horrek tasa negatibotan jarraitzen du.

Lan merkatuan, enpleguaren suntsiketa zertxobait arindu zen. Hain zuzen ere, urteko hirugarren hiruhilekoan, Europar Batasuneko langabezia tasa %9,1era igo zen, azken bost urteko gorenera, lanik gabeko langileen kopurua 22 milioien inguruan kokatuta. Langabe horietako %50aren inguruk Alemanian, Frantzian edo Espainian zuten egoitza. Azken herrialde horretan, langabezia tasa gutxienez azken hamar urteko epean jaso ez den maila altu batean ezarri da. Prezioen bilakaerari dagokionez, europar ekonomia gehienak hazkunde tasa negatibotan ibili dira hirugarren hiruhilekoan ere, baina lehengaien salneurriek berriki izan duten gorakadak –bereziki petrolioarenak- berriro kokatu zuen kontsumoko prezioen indizearen urte arteko tasa balio positibotan azaroan.

Espainiak barne produktu gordinaren jaitsiera murriztu zuen, baina Eurogunearen susperraldi erritmotik aldendu zen, hazkunde tasa bi hamarrenetan bakarrik hobetu zuelako. Hobekuntza txikia izan bazen ere, urte arteko beherakada leundu izanak 2007ko urtarriletik erakusten ari zen narriadurako joerarekin apurtzea eragin zuen eta krisiaren bilakaeran inflexio gunea izan daiteke.

Hain zuzen ere, 2009ko hirugarren hiruhilekoan, Espainiako ekonomia %-4,0 jaitsi zen, barne eskaria zertxobait suspertu zelako eta kanpo saldoak berriro ekarpen positiboa egin zuelako. Hala eta guztiz ere, kontsumo pribatuaren ahultasunak bere horretan jarraitu zuen, lan merkatuak bizi duen narriadura sakonaren ondorioz. Inbertsioa oso bizkor murriztu zen, baina ekipamendurako ondasunetan eginikoak galdutako balioen zati bat berreskuratu zuen, eta eraikuntzan eginikoak jaitsiera erritmoa egonkortu zuen. Eskaintzaren ikuspegitik, ez zen hobekuntza handirik hauteman. Jarduera adar guztiek aldakuntza tasa negatibotan jarraitu zuten, baina bat bera ere ez zen urteko bigarren hiruhilekoan jasotako marka apaletan baino okerrago kokatu. Aitzitik, lehen arloak eta industria eta energiak joera apur bat hobea erakutsi zuten.

Jardueraren hobekuntza txikiak ez zuen lan merkatua lagundu. Enplegua bigarren hiruhilabeteko erritmo berean jaitsi zen, %-7,2an, alegia, urtebete bateko epean lanaldi osoko 1.360.000 lanpostu galdu zirela agerian utziz. Enpleguaren galera adar guztietara hedatu zen, salbuespen bakarra merkatuko zerbitzuak direlarik, baina bereziki eraikuntzan eta industrian gauzatu zen. Prezioen bilakaerari dagokionez, hirugarren hiruhilekoak %-1,1eko datua jaso

zuen batez beste, uztailean KPI indizeak inoizko mailarik txikiena (%-1,4) izan zuelako. Urrian, gorantz egin zuen eta %-0,7an kokatu, iazko merkatze bat-batekoaren ondoren energiaren salneurriak berriro suspertu zirelako. Azkenik, azaroan kontsumoko prezioak tasa positiboetara itzuli dira (%0,3).

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	4,1	0,9	0,4	-1,0	-2,4	-3,1	-2,4
- Familien gastua	3,6	-0,6	-1,3	-3,3	-5,4	-6,0	-5,1
- Administrazioaren gastua	5,5	5,5	5,8	6,3	6,4	5,2	4,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,6	-4,4	-6,0	-10,9	-15,1	-17,2	-16,2
- Ekipamendurako ondasunak	9,0	-1,8	-3,0	-11,6	-24,4	-28,9	-24,3
- Eraikuntza	3,2	-5,5	-7,2	-10,2	-11,3	-11,8	-11,5
- Bestelako ekoizkinak	3,6	-4,3	-6,1	-11,8	-14,2	-17,5	-19,9
- Izakinen aldakuntza (*)	-0,1	0,1	0,2	0,1	0,1	0,0	0,0
Nazio eskaria (*)	4,4	-0,5	-1,4	-3,9	-6,2	-7,4	-6,5
Esportazioak	6,6	-1,0	-2,9	-7,1	-16,9	-15,1	-11,1
Inportazioak	8,0	-4,9	-7,6	-13,5	-22,6	-22,0	-17,0
BPG (m.p.)	3,6	0,9	0,5	-1,2	-3,2	-4,2	-4,0
Nekazaritza eta arrantza	1,8	-0,8	-0,1	-3,0	-2,1	-0,9	-0,6
Energia	0,9	1,9	2,4	-2,4	-7,6	-9,6	-7,9
Industria	0,9	-2,1	-3,0	-6,9	-15,5	-17,0	-15,7
Eraikuntza	2,3	-1,3	-1,5	-4,3	-5,8	-6,6	-6,6
Zerbitzuak	5,0	2,2	1,8	0,7	-0,2	-1,3	-1,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	1,0	1,0	-1,8	-2,0	-1,7	-2,6	-2,7
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	2,8	4,1	4,9	2,5	0,5	-0,7	-1,1
- Enplegua (**)	2,8	-0,6	-1,0	-3,2	-6,3	-7,2	-7,2

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Azkenik, administrazio publikoen defizita 62.780 milioi eurokoa izan zen irailean, hots, BPGren %5,96ra iritsi zen. Gehikuntza horren arrazoiak langabezia sariak ordaintzeko Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoari emandakoaren igoera, diru biletaren jaitsiera eta zergen eremuan hartu diren neurriak, hala nola likideziaren aurrerapenak, ordainketen geroratzek eta enplegua sustatzeko ekimenak dira.

Ekoizpena eta eskaria

Eustaten estimazioen arabera, barne produktu gordina %-4,0 murriztu zen 2009ko hirugarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago. Hori horrela izanda, 2009ko lehen bederatzi hilabeteetan EAEko ekonomiak batez beste %3,4 egin du behera. Hala eta guztiz ere, hirugarren hiruhilabetea jaso zen hiruhilabete arteko tasa %0,1 baino ez zen gutxitu, aurreko hiruhilabetea baino bederatzi hamarren gutxiago. Beraz, EAEko barne produktu gordina hiruhilabete arteko jaitsiera erritmoa leundu du berriro. Estimazio horren arabera, ekonomiaren narriadurak indarra galdu duela eta dagoeneko hondoa jo duela baieztatu daiteke.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
Barneko azken kontsumoa	4,1	2,2	1,9	-0,3	-2,0	-2,9	-2,8
- Familien gastua kontsumoan	3,6	1,6	1,0	-1,4	-3,7	-4,6	-4,3
- Herri admin. gastua kontsumoan	6,4	4,8	5,3	4,1	4,5	3,7	3,0
Kapital eraketa gordina	4,6	0,5	0,0	-2,5	-6,8	-9,1	-8,3
Barne eskaria	4,3	1,8	1,3	-0,9	-3,3	-4,6	-4,3
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,3	0,0	0,5	1,2	1,0	1,2	0,5
Esportazioak	5,4	4,1	5,5	-2,2	-11,8	-16,4	-15,8
Inportazioak	5,4	3,8	4,4	-3,9	-12,3	-17,0	-15,5
BPG (m.p.)	4,2	1,9	1,9	0,3	-2,5	-3,6	-4,0
Lehen arloa	0,0	0,5	-3,8	5,7	17,2	9,9	3,5
Industria	3,1	-0,5	0,0	-3,2	-8,6	-10,0	-11,3
Eraikuntza	11,3	-1,1	-1,4	-3,4	-4,8	-5,2	-4,9
Zerbitzuak	4,1	3,5	3,6	2,8	0,5	-0,5	-0,6
Balio erantsi gordina	4,4	1,9	2,0	0,5	-2,4	-3,6	-4,0
Ekoizkinen zerga garbiak	2,8	1,8	0,9	-1,4	-3,6	-4,0	-3,8

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Datuek erakusten dute narriadura txikiagoa izan dela barne eskariaren osagai ia guztietan. Hala eta guztiz ere, ekonomiaren jaitsiera ere orokorra izan dela eta guztietan hauteman da. Kontsumoak eta inbertsioak ekarpen negatiboa egin diote berriro hazkunderari, nahiz eta beren beherakada txikiagoa izan den, munduko ekonomiaren susperraldiak eragilean konfiantza

hobetu duelako. Administrazio publikoek ekonomia suspertzeko ezarri dituzten neurriek ere eragin positiboa izan dute barne eskarian. Kanpo eskariari dagokionez, hazkundeari egin dion ekarpena positiboa izan da berriro, baina aurreko hiruhilabetekoa baino txikiagoa. Hala esportazioak nola, bereziki, inportazioak gutxiago murriztu ziren 2009ko hirugarren hiruhilekoan.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpen arlo guztiek, salbuespen bakarra lehen arloa delarik, ekarpen negatiboa egin diote balio erantsi gordinaren hazkundeari. Beste hiruhileko batez, EAEko industria izan da ekonomiaren egoera murriztailea modu lazgarrienean nozitzen ari dena.

Ekoizpen jarduera


2009ko hirugarren hiruhilabeteko beherakadarik handiena industriak nozitu zuen, dagoeneko lau hiruhilekoz jarraian urte arteko aldakuntza tasa negatiboak metatu dituelako. Uztaila eta iraila bitartean, EAEko industriaren hazkundea %-11,3ra jaitsi zen urte arteko tasan. Beherakada horrek nazioarteko merkataritzaren narriadura eta munduko ekonomia nagusietan hazkunde igurikimenek izan duten kolapsoa islatzen ditu. Industriaren balio erantsiaren hondoratzea oso garbi ikusten da EAEko industria produkzioaren indizeak marraztu duen bilakaeran. Hirugarren hiruhilekoan, industria produkzioaren ziklo-joera erakusten duen osagaiak %23,4 egin zuen behera aurreko urteko epe beraren aldean. Bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera aztertuta, emaitza negatiboena ekipamendurako ondasunen ekoizpenak jaso zuen hiru hilabete horietan, ondoren kontsumo iraunkorreko ondasunak eta bitarteko ondasunak daudela. Kasu horietan guztietan, beherakada %25,0tik gorakoa izan da, urte arteko tasan neurtuta.

Barne eta kanpo eskarien murrizketa garrantzitsuak eragin nabarmena izan du industriaren adar guztietan eta 2009ko hirugarren hiruhilekoan ere EAEko balio erantsiari ekarpen handiena egiten duten adarrak, hots, makineria eta metalurgia, dira gaur egungo ekonomia abagunea gehien nozitu dutenak.


Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak enpresarien iritzien inkestaz argitaratu dituen datuek baieztatzen dute industriako enpresarien aurreikuspenak oso negatiboak direla oraindik. Industria giroaren indizeak oso maila negatibo altua (-47,2) markatu zuen berriro 2009ko hirugarren hiruhilekoan, baina aurreko hiruhilabetekoa baino hobea. Urrian eta azaroan (-42,7) argitaratutako datuek urteko azken laurdenean hobekuntzak aurrera jarraituko duela iragartzen dute. Industria ondasun guztiek oso bortizki murriztu dituzte beren eskari zorroa, salbuespen bakarra bitarteko ondasunak direlarik, azken hauek nolabaiteko hobekuntza lortu dute bigarren hiruhilabeteko emaitza txarren ondoren. Industria ekoizpenaren joerari dagokionez, badaude oraindik negatiboak diren baina suspertzeko joerari ekin dioten hainbat datu. EAEko industriaren ekoizpen ahalmenaren erabilerak, berriz, gorakada xume bat izan du, baina oraindik oso maila apaletan dago.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK
7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009			
			IV	I	II	III	Urria	Aza.
Industria								
Balio erantsi gordina	3,1	-0,5	-3,2	-8,6	-10,0	-11,3	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	4,0	-3,8	-11,2	-23,7	-23,9	-22,8	-21,9	---
Industria giroaren indizea	3,1	-14,7	-38,3	-55,6	-54,1	-47,2	-41,5	-42,7
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	82,1	82,6	81,4	68,1	64,1	68,4	---	68,5
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	1,8	-0,3	-2,3	-5,1	-6,8	-7,5	---	---
Eraikuntza								
Balio erantsi gordina	11,3	-1,1	-3,4	-4,8	-5,2	-4,9	---	---
Eskaintako etxebizitzak	7,2	1,8	-1,8	-8,1	-12,4	-15,0	---	---
Obra berriko baimenak	4,7	-35,0	-32,0	5,0	-23,4	-38,3	---	---
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	5,3	-3,1	-7,3	-9,3	-9,1	-10,8	---	---
Zerbitzuak								
Balio erantsi gordina	4,1	3,5	2,8	0,5	-0,5	-0,6	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	11,1	-4,7	-16,1	-24,5	-16,5	-8,2	-11,1	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	3,0	-3,2	-6,9	-16,5	1,5	3,4	3,0	3,0
Hoteletako okupazioa	46,6	43,9	38,4	30,6	42,7	54,3	44,1	37,7
Negoio zifren indizea	6,4	0,2	-8,4	-14,3	-18,5	-13,3	-11,2	---
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,2	2,3	1,2	-1,0	-2,1	-1,2	---	---

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Oficemen eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eraikuntzak ere bere balio erantsi gordina murriztu zuen uztaila eta iraila bitarteko epealdian, urte arteko tasan %-4,9ko aldakuntza jaso zuelako. Beraz, aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean hiru hamarren bakarrik gutxiago jaitsi zen. Arlo horretaz eskura dauden epe laburreko adierazleak aztertuta, etxegintzak bizi dituen zailtasunak begi bistan geratzen dira. Obra zibilak, berriz, portaera hobea izan zuen, baina ez du behar beste indarririk lortu sektorearen narriadura konpentsatzeko.

Eustatek eraikuntzaren koiuntura indizearen estimazio berriak argitaratu ditu 2009ko hirugarren hiruhilabeteko eta arloaren narriadura %15,0ko beherakada batean estimatu du, neurri handi batean eraikinen lanek eraginda. Obra publikoak ere oso nabarmen jaitsi da eta %-11,6ko beherakada jaso du. Sustapen Ministerioak lizitazio ofizialez argitaratu dituen datuek erakusten dute urtarrila eta abuztua bitartean adierazle hori %20,0aren inguru hazi zela 2008ko epealdi beraren aldean. Lizitazioak eraikuntzaren adierazle aurreratutzat jotzen dira. Beraz, lizitazioen susperraldi horrek nolabaiteko itxaropena iragartzen du sektorearen etorkizuneko bilakaeraz.

Hirugarren arloak ere ekarpen negatiboa egin zion balio erantsi gordinaren hazkundeari aurtengo hirugarren hiruhilekoan, urte arteko aldakuntza tasa %-0,6an kokatu zelarik. Beherakada hori, bereziki, merkaturatzen diren zerbitzuen gehikuntza erritmoaren murrizketaren ondorioa da, nahiz eta urte arteko tasak (%-1,8) hamarren bat hobetu zuen aurreko hiruhilabeteko emaitza. Beste aldetik, merkatura ez doazen eta nagusiki administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuek hazkunde tasa biziak jasotzen jarraitu dute eta uztaila eta iraila bitartean beren tasa %5,2an kokatu da, aurreko hiruhilabetearen lortutako emaitzatik puntu luze bat beherago.

Eustatek barne merkataritzako indizeaz osatu dituen datuek beherakada garrantzitsua izan zuten bai handizkako merkataritzan bai, neurri txikiagoan, txikizkako merkataritzan. Handizkako salmentei dagokienez, beherakada handienak makinerian, ekipamendurako ondasunetan, erdi landutako ekoizkintan eta txatarrean gauzatu ziren. EAEko turismoa dela eta, Eustatek ere egiten duen establezimendu turistiko hartzaileen inkesta emaitza hobeak jasotzen hasi da hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hilabete beren aldean. Gauzak horrela izanda, udako hilabeteetan egin ziren gaudiaren kopurua eta batez besteko egonaldia hazi dira, hala Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorritako turisten artean nola atzeritik etorritakoen artean.

Eskariaren osagaiak

Azken kontsumoko gastuak aldakuntza tasa negatiboa jaso zuen berriro, baina hirugarren hiruhilekoan zertxobait moteldu zuen bere jaitsiera aurreko hiruhilabetearen aldean. Uztaila eta iraila bitarteko epealdirako estimatu den aldakuntza tasa $\%-2,8$ an kokatu da. Beherakada hori familien azken kontsumoaren murrizketaren ondorioa da ($\%-4,3$), baina baita administrazio publikoen gastuak ($\%3,0$) izan duen ahultzearen ondorioa ere.

EAEko familien kontsumoak narriadura garrantzitsua izan du, bere bilakaera baldintzatzen duten faktoreen okertzearen ondorioz. Familien aberastasunak murrizketa handia izan du, hala finantza merkatuetan kokatuta zegoenak nola aktibo higiezinetan inbertitutakoak. Beste aldetik, errenta erabilgarriaren hazkundera txikiagoa izan da, langabezia tasak gora egin duelako, nahiz eta transferentzia publikoek eta prezioen jaitsierak errentaren galera neurri batean leundu duten.


Familien igurikimenei dagokienez, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak argitaratzen duen kontsumitzailearen konfiantza indizearen datuek konfiantzaren nolabaiteko susperraldia erakusten dute, bereziki laugarren hiruhilekoan. Hirugarrenean, ekonomia susperraldiaz zuten konfiantza eza oraindik begi bistakoa zen eta langabeziaren bilakaera negatiboa izango zela uste zuten, baina dagoeneko iritzi horiek hasi dira aldatzen. Hala ere, EAEko kontsumitzaileek inbertsio handiak egiteko asmoak maila apaletan jarraitzen du. Zentzu berean, txikizkako merkataritzaren salmenten indizeek ere joera negatiboa izan zuten hirugarren hiruhilekoan, nahiz eta azalera handietako salmentek emaitza positiboagoak erakusten hasi diren. Turismoen matrikulazioak oso tasa altuetan hazi dira Euskadin, Gobernuak emandako diru laguntzei esker. 2009. urteko hirugarren hiruhilekoan EAEko familien kontsumoa jaitsi zuela erakusten duen beste adierazle bat finantza erakundeek emandako kreditua da. Espainiako Bankuak argitaratzen dituen datu horiek $\%2,4$ ko jaitsiera izan dute. Tasa hori aurreko urteko epealdi berean jaso zen $\%7,4$ ko gehikuntza baino askoz ere txikiagoa da.

Administrazio publikoetako gastua, berriz, $\%3,0$ areagotu zen. Tasa hori garrantzitsua da, baina aurreko hiruhilabeteetako hazkunde erritmora iritsi gabe. Apaltzearen arrazoiak ondasun eta zerbitzu gutxiago erosi izana eta administrazioaren soldatapekoen ordainketa osoaren jaitsiera dira. Laburbilduz, kontsumo publikoak zikloaren aurkako portaerari eutsi dio, ekonomiak bizi duen une honetan gertatu ohi denez.


Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


Kontsumo pribatua




Kontsumo publikoa




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Kapitaleko eraketa gordinak larriki nozitu du berriro ekonomiaren atzeraldiaren gogortasuna, baina narriadura erritmoa hasi da leuntzen. Osagai horrek behera egin zuen urteko hirugarren hiruhilekoan eta %-8,3an estimatu du oraingo jaitsiera, aurreko hiruhilabeteko emaitza zertxobait hobetuz. Beherakada horren erantzuleak eraikuntzaren inbertsioa eta, bereziki, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa izan ziren. Barne eta kanpo eskariaren ahultasunak, ekoizteko ahalmenaren erabilera apalak, hazkunde igurikimen ezkorrek eta finantzazioa lortzeko baldintza zorrotzek EAEko enpresarien inbertitzeko erabakiak murrizten dituzte. Beheranzko joera hori bat dator eskura dauden adierazleen datuekin. Ekipamendurako ondasunen industria ekoizpenaren indizeak, hala Estatukoak nola EAEkoak, aldakuntza tasa negatibo garrantzitsuak izan zituen epealdi horretan. Kezkatzeko moduko beste zenbateko batzuk dira ekipamendurako ondasunen inportazioa eta zamaketarako ibilgailuen matrikulazioarena, hilabete horietan beherakada handiak izan zituztelako, nahiz eta aurreko hiruhilabeteetakoak baino zertxobait txikiagoak izan ziren. Beste aldetik, industriaren ekoizpen ahalmena %68,4an kokatu zen uztaila eta iraila bitartean, aurreko urteko epealdi berean jasotako %81,0aren azpitik.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008	2009				
			IV	I	II	III	Urria	Aza.
Kontsumo pribatua								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	3,6	1,6	-1,4	-3,7	-4,6	-4,3	---	---
BMI txikizkaria	1,3	-3,0	-5,5	-6,7	-4,0	-4,8	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-0,5	-4,5	-5,0	-4,6	-2,8	0,6	0,6	---
Landunak txikizkarian	2,7	2,2	-0,2	-2,8	-3,4	-3,0	---	---
Automobilien matrikulazioa (*)	-3,8	-20,2	-25,9	-24,7	-16,5	17,8	46,8	47,3
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	96,0	80,0	71,0	70,0	67,0	72,0	---	---
Kapital eraketa gordina								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	4,6	0,5	-2,5	-6,8	-9,1	-8,3	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	7,5	-2,3	-9,5	-26,0	-28,9	-35,3	-27,6	---
IPI ekipamendua Estatua (*)	4,7	-9,5	-22,1	-27,0	-28,3	-30,7	-24,0	---
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	14,5	-1,1	-26,8	-41,8	-31,9	-24,4	---	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-3,1	-37,2	-50,4	-49,9	-47,2	-34,5	-24,8	-22,1

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.


Kanpo saldoa

Oraingo finantza krisiak munduko jardueraren jaitsiera orokorra eragiteaz gain, nazioarteko merkataritzaren beherakada garrantzitsua ere ekarri du. 2009ko bigarren hiruhilekoan jasotako gutxieneko datuaren ondoren, udako hilabeteetan munduko merkataritza egonkortzen hasi zen, Asiako ekonomiek lortu zuten hazkunde biziari esker. Urte arteko tasetan hazkundeak oraindik negatiboak izan ziren arren, herrialde esportatzaile nagusien salmentak igotzen hasi ziren eta jaitsierak gero eta txikiagoak dira.


Ondasunen esportazioak Urte arteko aldakuntza tasak

7. Irudia


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Japonia



Iturria: ELGE, Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila eta Japoniako Finantza Ministerioa.

Esportazioen susperraldia are nabarmenagoa izan zen hiruhilabete arteko tasetan neurtuta, hirugarren hiruhilekoan %10aren inguruko emaitza positiboak lortu baitziren mundu mailan. Izan ere, bederatzi hilabetez etengabeko beherakadak jaso ondoren, bigarren gehikuntza positiboa izan da hori. Beraz, ekonomiaren bilakaerarekin gertatzen den bezala, badirudi aldagai horretan ere krisiaren une gogorrena atzean geratu dela.

EAEko ekonomia ez zen merkataritzako salerosketen joera aldaketa horretatik aldendu eta nolabaiteko hobekuntza erakutsi zuen aurreko hiruhilekoan lortutako balioen aldean. Inportazioek bilakaera hobea izan zuten eta aurreko hilabeteetakoak baino maila altuagoa lortu zuten. Esportazioek, ordea, berriro egin zuten behera. Hala eta guztiz ere, salmenten maila berriro kokatu zen erosketen gainetik eta, horren ondorioz, saldoa positiboa izan zen berriro. Energiaraz bestelako salerosketek ere hobekuntza hori erakutsi zuten eta beherakada erritmoa leundu zuten. Hain zuzen ere, energiakoak ez diren esportazioak %-29,8 gutxitu ziren, inportazioak %-40,9 murriztu ziren bitartean. Bi bilakaera horien ondorioz, merkataritzaren saldoak 1.226 milioi euroak gainditu zituen. Dena dela, salmenten eta erosketen erritmoak krisiaren aurreko mailaren oso azpitik jarraitzen du.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

9. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2009-III
	2007	2008	2008		2009			
			III	IV	I	II	III	
ESPORTAZIOAK								
Guztira	14,6	6,3	13,8	-10,2	-26,0	-35,9	-30,2	3.446.045
Ez energetikoak	14,7	4,9	14,6	-10,2	-23,9	-34,9	-29,8	3.142.390
INPORTAZIOAK								
Guztira	8,2	6,4	20,0	-22,4	-41,4	-47,0	-43,4	3.032.051
Ez energetikoak	14,1	-0,8	6,4	-19,3	-41,7	-44,4	-40,9	1.915.752


Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


Ondasunen esportazioak eta inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

8. irudia


Energiako ondasunen esportazioak




Energiako ondasunen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta beren manif. esportazioak



Metal arrunten eta beren manif. inportazioak



Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Esportazioen analisisa arantzel sekzioen arabera egiten bada, atal guztiek egin zuten behera berriro, baina gehienek nolabaiteko susperraldia izan zuten bigarren hiruhilabeteko jaitsiera garrantzitsuen ondoren. Izan ere, salbuespen bakarrak nekazaritza, kautxua eta plastikoa, eta metal arruntak eta beren manufakturak direlarik, gainontzeko atal guztiek galdutako salmenten zati bat berreskuratu zuten. Aipamen berezia merezi du metal arruntak eta beren manufakturak izeneko adarraren bilakaera txarra, esportazio guztien %45 baino gehiago biltzen baititu, eta, neurri handi batean, salmenta guztien norabidea baldintzatzen duena. Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko barne eskarien ahultasunak burdina galdaketaren eta galdaketazko manufakturen salmentak ohi duten mailaren erdira ere ez iristea eragin zuen, talde osoaren murrizketa areagotuz.

Inportazioei dagokienez, atal gehienek izan duten gorakada arinak susperraldiaren hasiera iradokitzen du. Hala eta guztiz ere, talde guztiek aldakuntza tasa negatibotan jarraitu zuten, bereziki nekazaritzaren arloak, bere jaitsiera areagotu zuelako, eta metal arruntak eta beren manufakturek, oso hobekuntza txikia izan zutelako eta erosketen kopurua 2003ko hasieratik inoizko txikienak izan zirelako.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZA EZ-ENERGETIKOAREN HELBURUA ETA JATORRIA 10. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2009-III
	2007	2008	2008		2009			
			III	IV	I	II	III	
Esportazioak								
ELGE	10,2	3,3	10,2	-11,9	-28,8	-39,0	-31,2	2.385.017
Eurogunea	10,1	4,0	13,5	-10,5	-33,5	-40,1	-33,2	1.685.758
Europako kide berriak	28,7	7,9	3,8	-12,7	-45,5	-28,1	-17,3	177.675
Europar Batasuna 27	11,0	3,3	9,6	-14,7	-35,4	-40,7	-32,5	2.049.244
Errusia	44,2	50,4	56,2	29,9	-53,4	-53,2	-61,8	21.206
Txina	20,6	33,6	53,6	9,1	-20,0	-40,2	-46,3	48.600
Brasil	46,2	13,4	4,7	19,1	-26,7	-46,7	-35,6	48.408
Inportazioak								
ELGE	13,6	-2,5	4,2	-23,3	-43,4	-41,2	-33,7	1.508.433
Eurogunea	15,7	-1,7	3,5	-26,4	-46,6	-40,4	-32,7	1.142.311
Europako kide berriak	14,8	9,2	23,5	-8,9	-26,3	-42,0	-26,5	76.993
Europar Batasuna 27	12,0	-3,1	3,6	-25,8	-46,5	-42,0	-34,5	1.330.823
Errusia	6,9	5,5	46,2	-36,8	-44,4	-76,7	-75,7	39.572
Txina	45,7	-2,3	-13,3	-11,9	-27,9	-37,3	-42,6	166.556
Brasil	-15,9	-1,9	25,1	4,8	-59,1	-78,0	-86,2	7.578

Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Ikuspegi geografiko batetik, Europako herrialdeetan hasi den susperraldia begi bistakoa izan da EAEko salmenten bilakaeran. Europar merkatuak aurreko hiruhilabeteko murrizketa garrantzitsutik zertxobait lehengoratzea lortu zuen eta Europako herrialde nagusietara bidali ziren energiaz bestelako esportazioek aldakuntza tasa negatibotan jarraitu bazuten ere, nolabaiteko gorakada hauteman zen Frantziara, Alemaniara eta Erresuma Batura zuzendutako salmentetan. Europar Batasunetik at, joerak okerrera egin zuen eta esportazioak are gehiago murriztu ziren, batez ere euroak gainontzeko txanponen aldean lortu zuen balio irabazi nabarmenaren ondorioz.

Energiakoak ez diren inportazioen bilakaerak esportazioenaren oso antzekoa izan zen. Erosketen jaitsiera orokorra izan zen eremu guztietan eta Europako inportazio ez-energetikoek bakarrik izan zuten hobekuntza txiki bat aurreko hiruhilabeteko maila txikien aldean. Europar batasunetik kanpo, erosketen beherakada areagotu zen. AEBek eta Japoniak beren jaitsiera biziagotu zuten eta gutxienez azken hamar urtean inoiz jaso ez zuten mailetara jaitsiz. Beste aldetik, ELGE erakundetik kanpo beherakadak %75eko tasa gainditzera iritsi ziren.

Lan merkatua

Hirugarren hiruhilekoan jasotako datuek baieztatzen dute enpleguaren jaitsierak ez duela oraindik bere beheko muga jo eta lan merkatuak oso nabarmen nozitzen dituela gaur egungo krisiaren eraginak. Izan ere, landunen kopurua ez da igo udan sortzen den behin-behineko enpleguari esker. Aitzitik, are gehiago murriztu da. Orobat, lanik gabe dauden lagunen kopuruak igotzen jarraitu du.

LANGABEZIAREN BILAKAERA

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
Langabeak BJA inkestaren arabera	-19,2	17,2	16,0	49,5	133,9	122,9	136,2
Langabeak BAI inkestaren arabera	-12,5	6,3	5,7	46,0	83,4	85,5	79,3
Langabeak INEMen erregistroetan	-6,4	11,8	10,2	27,1	40,2	48,3	47,9
Langabezia tasa BJA inkestaren arabera	%3,3	%3,8	%3,5	%4,7	%7,7	%7,8	%8,3
Langabezia tasa BAI inkestaren arabera	%6,1	%6,4	%6,3	%8,3	%10,3	%10,5	%11,6


Iturria: Eustat, INE eta INEM.

Hain zuzen ere, lan merkatua aztertzen duten iturri guztiek enpleguaren krisiak Euskadin izan duen larritasuna azpimarratzen dute, jaitsierak hiruhilabetekako kontuen %3,8tik BAI inkestaren %8,2ra mugitzen direlarik, tartean Gizarte Segurantzaren afiliatuen %4,1eko murrizketa eta BJA inkestaren %4,5eko beherakada daudelarik. Hala ere, bai kontuek bai afiliatuek enplegua galtzeko erritmoa azken hilabeteetan zertxobait leundu dela iradokitzen dute, neurri batean, tokiko sustapenerako egitasmoari esker.


Enplegu estatistiken bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

9. irudia


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzaren eta INE.

Aurreko hiruhilekoan bezala, ekonomiaren arlo guztietan lanpostuak galdu ziren, baina azpimarratzekoa da industriak bizi duen egoera txarra, azken urtebetean galdu diren lanpostu guztietatik %50 sektore horretakoak zirelako. Industriaren gelditasunak eragin nabarmena izan zuen EAEko industria ehunean pisu garrantzitsua duten hainbat jarduera adarretan, hala nola metalurgian eta automobilgintzan. Hala ere, azken adar horretan hasiak dira suspertzeko lehen zantzuak hautematen. Eraikuntzak jasotzen ditu oraindik urte arteko aldakuntza tasa ezkorrenak, baina termino absolutuetan industriak baino lanpostu gutxiago galdu zituen, neurri batean, administrazioek obra zibila garatzeko hartu dituzten politikei esker. Azkenik, zerbitzuek gainontzeko arloek baino hobeto eutsi zioten krisiaren indarrari, baina ezin izan dituzte kalteak osorik saihestu.

Barne produktu gordinaren jaitsiera erritmoaren moteltzearekin batera enplegua ere gutxiago murriztu zen. Beraz, ekoizkertasuneko irabaziak tasa negatibotan kokatu ziren, industriak gero eta tasa negatiboagoak jasotzen dituelako. Datu horien azalpena ideia honetan kokatu behar da: krisiaren testuinguruan, doikuntza batez besteko lanaldiaren murrizketan oinarritu nahi da, lanpostuen kopuruan baino gehiago.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

12. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
Enplegua guztira	2,8	1,0	0,6	-0,6	-2,9	-4,0	-3,8
<i>Ekoizkertasuna guztira</i>	1,4	0,9	1,3	0,9	0,4	0,4	-0,2
Enplegua lehen arloan	-4,2	-1,6	-1,2	-1,2	-5,2	-4,9	-4,2
<i>Ekoizkertasuna lehen arloan</i>	4,4	2,1	-2,6	7,0	23,6	15,6	8,0
Enplegua industrian	1,8	-0,3	-0,2	-2,3	-5,1	-6,8	-7,5
<i>Ekoizkertasuna industrian</i>	1,3	-0,2	0,2	-0,9	-3,7	-3,4	-4,1
Enplegua eraikuntzan	5,3	-3,1	-2,7	-7,3	-9,3	-9,1	-10,8
<i>Ekoizkertasuna eraikuntzan</i>	5,7	2,1	1,3	4,2	5,0	4,3	6,6
Enplegua zerbitzuetan	3,2	2,2	1,5	1,2	-1,0	-2,1	-1,2
<i>Ekoizkertasuna zerbitzuetan</i>	1,4	0,9	2,1	1,6	1,5	1,6	0,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustaten datuetan oinarrituta.

Analisia biztanleria jardueraren arabera izeneko estatistikan egiten bada, azpimarratzekoa da emakumeek hobeto egin diotela aurre krisiari, oraingo atzeraldiak gehien kaltetu dituen sektoreetan, hots, industrian eta eraikuntzan, bereziki gizonak kontratatu direlako. Zehazkiago adierazita, azken urtebetean galdu diren 44.300 lanpostuetatik, 38.100 gizonen betetzen

zituzten eta bakarrik 6.200 emakumeek. Hori horrela izanda, emakumeek enplegu guztiaren %44,4 betetzen dute. Hala eta guztiz ere, oraingo krisian kolektibo horrek bilakaera hobe izan duen arren, talde horretako enplegurako Europan ezarri zen helburua, hau da, enplegu tasa %60ra iristearena, gero eta urrunago dago eta azken datuetan tasa hori %58aren inguruan dago kokatuta.

Lanpostuen galera, berriz, oso lotuta dago landunen gaztetasunari. Izan ere, galdutako lau lanpostu bakoitzetik bat baino gehiago (%-29,8) gazteek galdu zuten. Aitzitik, 25 eta 44 urte bitarteko taldean enpleguaren galera %5,1era mugatu zen eta 44 urtetik gorako biztanlerian ez zen galerarik gertatu eta bere kopuruak gora egin zuen berriro, urte arteko tasa %0,7ra iritsi arte. Beraz, talde horrek ia ez du nabaritu krisiaren eragina, baina bere enplegu tasak ez du aurrera egin eta oraindik Lisboan ezarritako helburutik zortzi puntura baino gehiagora dago bere enplegu tasa.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

13. TAULA

Ehunekoa

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
Partaidetza tasa guztira	54,8	55,3	55,4	55,2	55,7	55,3	55,4
- Gizonak	65,1	64,5	64,7	63,6	64,1	63,6	64,0
- Emakumeak	45,2	46,7	46,6	47,2	47,8	47,4	47,3
- 16 urtetik 24ra	33,5	34,6	35,5	31,6	32,8	31,4	31,4
- 25 urtetik 44ra	85,9	86,5	86,4	87,1	88,2	87,5	87,0
- 45 urte eta gehiago	36,9	37,6	37,6	37,6	37,8	37,8	38,3
Enplegu tasa guztira	53,1	53,3	53,4	52,6	51,4	50,9	50,8
- Gizonak	63,1	62,3	62,6	61,0	59,2	58,5	58,1
- Emakumeak	43,5	44,7	44,8	44,7	44,0	43,8	43,9
- 16 urtetik 24ra	30,9	31,2	32,2	27,9	26,0	25,0	23,5
- 25 urtetik 44ra	82,8	82,9	83,3	82,6	80,5	79,8	79,6
- 45 urte eta gehiago	36,2	36,8	36,7	36,6	36,2	36,1	36,2
Langabezia tasa guztira	3,3	3,8	3,5	4,7	7,7	7,8	8,3
- Gizonak	3,0	3,4	3,3	4,1	7,6	8,0	9,1
- Emakumeak	3,6	4,2	3,8	5,3	7,9	7,6	7,2
- 16 urtetik 24ra	7,7	9,9	9,1	11,8	20,8	20,5	25,3
- 25 urtetik 44ra	3,7	4,1	3,6	5,2	8,7	8,7	8,5
- 45 urte eta gehiago	1,8	2,3	2,5	2,7	4,2	4,5	5,5


Iturria: BJA (Eustat).

Ekonomiaren egoera txarra izan arren, lan merkatuan parte hartzen dutenen kopuruak, BJaren arabera, gora egin du eta %0,5eko igoera jaso. Tasa hori 2008ko hazkundeetatik urrun dago eta aurreikuspenek iradokitzen dute parte hartzaileek indarra galduko dutela datozen hilabeteetan. Izan ere, partaidetza tasa txikienak (%31,4) gazteek jaso dituzte, horietako askok lan merkatua utzi dutelako prestakuntza gehiago sakontzeko. Emakumeen artean ere etsipen sentazio bat hedatzen ari da eta aurreko hazkunde tasa bizien ondoren, oraingoak txikiagoak dira.

Enpleguaren galerak badu bere isla langabeziaren gorakada eta BJaren arabera 85.500 langabe zeuden hirugarren hiruhilekoan. Zenbateko hori INEMen izena emanda dagoen kopuruaren oso azpitik dago, baina joera berdina dago bi estatistiketan, zeren eta bietan langabeen taldeak oso gora egin duelako. Langabezia gehiago areagotu da gizonen artean berriro (53.000 gizon eta 32.500 emakume daude lanik gabe), beraz gizonen langabezia tasak ia bi puntutan gairatzen du emakumeena dagoeneko (hurrenez hurren, %9,1 eta %7,2). Beste aldetik, gazteenek nozitzen dute gehien langabeziaren igoera, beren langabezia tasa %25,3an kokatu baita. Gazteei egin dizkieten kontratuak, neurri handiago batean, behin-behinekoak izan direnez, errazagoa da hauek kaleratzea, enpresetan baloratzen diren beste toki batera joateko prestasuna eta eginbeharrak aldatzeko malgutasuna eskaintzen dituzten arren.

Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enplegua erregulatzeko dossierrei dagokienez, ukitutako lagunen kopurua aurreko hiruhilekoaren aldean oso nabarmen murriztu bazen ere, ia erdira jaitsi baita (19.399 eta 10.020, hurrenez hurren), lanaldia murrizteko eta aldi baterako eteteko dosierrak hasi dira kontratua amaitzeko dossier bihurtzen. Izan ere, kontratua amaitzeko dosierrak izan dira gehitu diren bakarrak (468 hirugarren hiruhilekoan eta 357 bigarrenean). Bilakaera horrek iradoki dezake enplegu egonkorra ere hasi dela galtzen, baina gogoratu behar da prozedura hori erabilia galdu diren lanpostuen kopurua desagertu diren lanpostu guztietako %1,1 bakarrik dela.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

14. TAULA

	2007	2008	2008			2009		
			II	III	IV	II	III	Urria
Dossierren kopurua	282	496	66	43	341	770	492	185
Eragindako langileak	4.815	12.794	1.106	723	10.179	19.399	10.020	4.712
<i>Dossier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	17	108	19	6	82	323	124	29
- Behin-behineko etetea	3.856	11.216	789	464	9.553	18.719	9.428	4.508
- Kontratua amaitzekoa	942	1.470	298	253	544	357	468	175

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Azkenik, soldatapekoen analisiak adierazten du aldi baterako kontratua duten soldatapekoen kopuruaren beherakada zertxobait leundu dela, hirugarren hiruhilekoan %-13,4ko urte arteko aldakuntza tasa jaso duelako, aurreko hiruhilekoan %-14,5 izan zuen bitartean. Beste aldetik, kontratu mugagabea duten soldatapekoak hasi dira krisiaren kaltea nozitzen, aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean 21.100 lagun gutxiago direlako. Dena dela, talde horren urte arteko aldakuntza tasa (%-3,3) aldi baterako soldatapekoena baino askoz gutxiago jaitsi da eta horrek agerian uzten du doikuntzaren pisu handiena aldi baterako langileengan jarri dela. Orobat, aldibaterakotasun tasa gutxitu da, baina ez egonkortasun gehiago dagoelako, aldi baterako kontratua zuten langileen enplegu galera biziagoa izan delako baizik.

Prezioak, kostuak eta soldatak


Inflazioak gutxieneko balioa jaso zuen uztailean, $\%-0,6$ ko aldakuntza tasa batekin. Harez geroztik, tasa negatiboak, baina txikiagoak izan zituen ondorengo hilabeteetan ere eta hirugarren hiruhilekoan, batez beste, $\%-0,3$ an kokatu zen, aurreko hiruhilekoan aldaketarik jaso ez zuen bitartean. Prezioen jaitsiera, bereziki, duela urtebete bat maila altua zuten energia ekoizkinen merkatze garrantzitsuaren ondorioa da, eskari ahuleko testuinguru batean. Hala eta guztiz ere, azken hilabeteetako joera hori aldatu da, zeren eta azaroan, argitaratu den azken hilabetea baita, petrolioaren salneurria gehikuntza tasa positiboetara itzuli baitzen. Garestitze horren ondorioz, inflazioa ere tasa positiboetara itzuli da, sei hilabetez jarraian balio negatiboak jaso eta gero.

Energiaren merkatzeaz gain, landugabeko elikagaien eta energiaz bestelako industria ondasunen salneurrien jaitsiera ere azpimarratu behar da. Azken hauek, oro har, lehia handiko merkatu irekietan sortzen dira eta ekitaldi honetako urtarilean tasa negatibotan sartu ziren, beherakada gero eta handiagoa zelarik. Joera horren atzean, automobilen merkatzea hauteman da. Landugabeko elikagaien prezioek, berriz, oso nabarmen gutxitu zituzten beren igoerak, petrolio gordinarekin gertatu den bezala, 2008. urtean atal horretako produktuek gorakada handia izan zutelako, orain berritu ez dena.


KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

11. irudia

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Beste aldetik, azpiko inflazioaren zuzenketa nabarmena azpimarratu behar da, eskariak gaur egun erakusten duen ahultasunaren ondorioz. Hain zuzen ere, adierazle honek bere urte arteko aldakuntza tasa %0,8ra gutxitu zuen hirugarren hiruhilekoan, baina are gehiago jaitsi zuen bere tasa azaroan, %0,5ean kokatu arte. Moteltzeko joera hori are garrantzitsuagoa izan zitekeen tabakoaren gaineko zerga igo ez balute. Agerian geratu dira energiaz bestelako lehengaien merkatzea eta kontsumoaren ahultasunetik eratorri diren beheranzko presioak, salmentak bizkortzeko enpresek prezioak jaitsi dituztelako.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2007	2008	2009			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazioa guztira (%100)	2,8	4,1	0,0	-0,3	0,6	0,6
Azpiko inflazioa (%83,7)	2,8	3,2	1,3	0,8	0,5	0,4
KPI Landutako elikagaiak (%12,9)	4,0	6,6	0,7	1,2	0,7	0,1
KPI Industriako ondasunak (%29,8)	0,7	0,6	-0,5	-1,3	-1,4	-0,4
KPI Zerbitzuak (%41,0)	3,9	3,9	2,8	2,1	1,8	0,7
Hondarreko inflazioa (%16,3)	3,0	8,5	-6,1	-5,6	1,3	0,2
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,0)	4,2	5,0	0,5	-0,5	-0,7	0,0
KPI Energia (%9,3)	1,9	11,6	-11,8	-10,5	2,0	0,2

Iturria: INE.

Eurogunearekiko inflazio tarte bi hamarretan kokatu zen EAEren alde aurreko hiruhilabeteen, baina hirugarrenean egoera aldatu egin da eta hamarren bateko alde dago Eurogunearen alde. Izan ere, inflazioa %-0,3an kokatu zen Euskadin eta %-0,4an europar eremu horretan. Tarte hori ohiko taldeetan gauzatu da, hala nola zerbitzuei lotutako batzuetan (irakaskuntza eta ostalaritza), eskariaren ahultasunaren ondorioz igoerak apaldu diren arren, baina baita edari alkoholadunak eta tabakoan ere, lehenago aipatu den tabakoaren gaineko zergaren igoeraren ondorioz. Hala eta guztiz ere, gehikuntza handiago horiek garraioaren bilakaerak ia osorik konpentsatu ditu. Garraioaren merkatzea energiako ekoizkinen bilakaeraren ondorio zuzena da. Dena dela, azken hilabeteetan beherakada horiek igoera txikiak bihurtu dira.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2007	2008	2009			
			I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	2,8	4,1	0,9	0,0	-0,3	0,6
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,8	6,3	1,7	0,1	-0,8	-1,3
Edari alkoholodunak eta tabakoa	6,6	4,0	4,1	5,0	12,3	12,1
Jantziak eta oinetakoak	1,4	0,7	-1,6	-1,4	-1,9	-0,3
Etxebizitza	3,6	6,4	5,3	2,0	0,2	0,1
Etxeko hornidura	3,5	3,0	2,2	1,9	2,1	0,9
Medikuntza	-0,5	-0,1	0,0	0,3	-0,4	-0,7
Garraioa	2,3	5,7	-6,5	-8,0	-7,1	0,9
Komunikazioak	0,2	0,0	-0,5	-0,7	-0,7	-0,7
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	0,8	1,6	-0,5	-0,6
Irakaskuntza	4,5	4,7	4,9	4,9	4,6	2,3
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	4,6	3,3	2,5	2,1	1,7
Besteak	3,2	3,4	3,4	2,7	2,1	1,8

Iturria: INE.

IPRIren bilakaerak aldakuntza tasa negatiboak jaso ditu urteko hilabete guztietan, bereziki hirugarren hiruhilabeteke datuetan, baina urrian, hots, argitaratu den azken hilabetean, beheranzko joera hori apaldu zen eta indizea %-7,1ean kokatu zen. Beste behin, beherakadak oso sakonak izan ziren bitarteko ondasunetan eta, bereziki, energiako salneurrietan, berriki zertxobait suspertu badira ere, baina baita kontsumoko ondasunetan ere.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

17. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009			
			I	II	III	Urria
Indize orokorra	4,0	6,6	-3,2	-7,3	-9,2	-7,1
Kontsumoko ondasunak	4,1	4,4	1,8	0,2	-0,9	-0,9
- Kontsumo iraunkorrak	1,4	3,1	1,9	0,2	-0,8	-0,7
- Kontsumo iragankorrak	5,3	5,0	1,7	0,2	-0,9	-0,9
Ekipamendurako ondasunak	3,9	3,0	2,1	1,7	1,2	0,7
Bitarteko ondasunak	6,0	4,2	-1,8	-8,2	-11,4	-9,9
Energia	-1,4	20,0	-16,7	-20,6	-21,1	-14,1

Iturria: Eustat.

Soldaten adierazleek oso nabarmen murriztu zituzten beren hazkundeak aurreko hiruhilabeteetako emaitzen aldean. Horrek pentsarazten du enpleguaren doikuntza gaur egun ez dela langileen kopuruan bakarrik oinarritzen eta beraien kostuan ere eragin zuzena daukala. Azpimarratzekoa da soldataz bestelako kostuen gehikuntza hutsala izan dela, atal horretan kontuan hartzen diren kostuetako bat, irazpenarena, bereziki aldi baterako langileengan izan duelako eragina, eta horien kostua txikiagoa da.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

18. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009		
			III	IV	I	II	III
Kostu guztiak	4,1	4,7	4,4	4,2	4,6	3,8	0,4
- Soldata kostuak	3,6	5,8	4,8	6,3	4,7	4,1	0,5
- Bestelako kostuak	5,5	1,7	3,3	-2,0	4,2	3,1	0,0

Iturria: INE.

Azkenik, hitzarmen kolektiboak 2008. urtean baino moteltasun handiagoa erakusten ari dira salbagoardiako klausulak indarrean sartu ez direlako. Hala ere, moteltasun hori ez da espero zena bezain garrantzitsua, inflazioaren doikuntza eta ekonomiaren narriadura bizia kontuan hartzen badira. Hain zuzen ere, gaur eguneko negoziazio kolektiboak eta hitzarmen horien salbagoardiako klausulek soldatak inflazioaren gaintik igotzera laguntzen dute, igoeretara bai baina jaitsieretara ez direlako egokitzen. Horrelako zerbait ari da orain gertatzen, inflazioa negatiboa izatera iritsi baita.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

19. TAULA

	2005	2006	2007	2008	2009(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,5	4,9	4,2	5,0	2,8
- Urtean zehar sinatutakoak	4,3	5,0	4,1	4,8	3,0
Negoziazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,6	5,0	4,2	5,2	2,8
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,1	4,2	4,1	2,7

(*) 2009ko iraila arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Alde batetik, ekonomia jardueraren eta enpleguaren narriadurak eta, beste aldetik, krisiak familien eta enpresen errenta erabilgarrian izan dituen eraginak leuntzeko eta kredituaren fluxua bermatzeko hartu diren neurriek aurrekontu eragiketen bilakaera oso nabarmen baldintzatu dute. Hain zuzen ere, iraila arte metatu diren diru sarrera arruntak %17,8 murriztu ziren, kontsumoa oso ahul dagoelako eta lan merkatuan lanpostuak galtzen direlako. Aitzitik, gastuek hazten jarraitu zuten, ekonomia sustatzeko egitasmoetatik eratortzen diren kostuen ondorioz.

Zehazkiago adierazita, gastuaren bultzada handiena, ekonomia jarduera biziagotzeko asmoz, kapitaleko transferentzietan gauzatu zen (%21,4), udal korporazioen tokiko inbertsioak finantzatzera bideratuak baitira. Beste aldetik, transferentzia arruntek, oraingo egoeraren ondorioz, zeinua aldatu zuten (%-2,2) eta finantza gastuek tasa negatiboak (%-7,0) jaso zituzten berriro, baina joera hori laster aldatuko da, gero eta handiagoa den zor publikoaren interesak ordaindu beharko direlako.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK (2009ko urtariletik irailera)

20. TAULA

Mila euro

	2008	2009	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	10.107.777	8.377.334	-17,1
2. GASTU ARRUNTAK	8.423.679	8.660.664	2,8
Langileen gastuak	1.551.119	1.656.149	6,8
Funtzionamenduko gastuak	2.202.424	2.440.872	10,8
Finantza gastuak	38.120	35.442	-7,0
Transferentzia arruntak	4.632.016	4.528.201	-2,2
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	1.684.098	-283.330	-116,8
4. KAPITALEKO SARRERAK	108.323	35.627	-67,1
5. KAPITALEKO GASTUAK	876.145	1.018.761	16,3
Inbertsio errealak	415.140	459.103	10,6
Kapitaleko transferentziak	461.005	559.658	21,4
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-767.822	-983.134	-28,0
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA	916.276	-1.266.464	-238,2

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Oro har, zergen bidezko diru bilketak %21,0 egin zuen behera lehen hamar hilabeteetan, barne produktu gordin nominala murriztu zena (%-3,1) baino askoz ere gehiago delarik. Halaber, kontuan hartu behar da badaudela bildu gabeko beste diru kopuru batzuk ere, zerga pizgarriei lotuta daudenak, zergadun jakin batzuei edo arlo politiko ekonomiko edo gizarteko ekintza jakin batzuei laguntza ematea helburu dutenak, hala nola kenketak, salbuespenak, hobariak eta zerga arinketak.

Zehazkiago adierazita, PFEZ zergak urria arte 2008ko epealdi berean baino %-14,4 gutxiago bildu zuen. Diru kopuru hori oso garrantzitsua da, baina aurreko hilabeteetan jaso zuena baino zertxobait txikiagoa. Jaitsiera horretan eragin azpimarragarria izan zuen kuota diferentzial garbiaren bilakaerak, aurreko urtekoa baino balio negatiboagoa izan duelako, neurri handi batean aurtengo aitortenean agertzen zen 400 euroko kenkariaren ondorioz. Beste aldetik, adierazi behar da inbertsio funtsen irabazien gaineko atxikipenak gutxitu direla, errentagarritasunak behera egin duelako. Azkenik, laneko atxikipenek %4,5eko jaitsiera izan dute berriro. Zenbateko hori enpleguak epealdi horretan izan duen jaitsieratik nahiko hurbil dago.

PFEZ bezala, sozietateen gaineko zergak ere beherakada garrantzitsuak (%-30,2) jaso zituen, enpresen soberakin txikiagoko testuinguru batean, bai sozietateen mozkinak eta emaitzak bai gainbalioak gutxitu zirelako, jardueraren moteltzearen ondorioz. Halaber, itzulketak areagotu ziren.

Zeharkako zergeri dagokienez, balio erantsiaren gaineko zergak beherakada handiak jaso zituen (%-24,1 berezko kudeaketan eta %-32,5 zergaren doikuntzan). Hainbat arrazoi daude jaitsiera horren atzean, hala nola kontsumo pribatuaren ahultasuna, etxebizitza gutxiago saldu izana, hilabeteko itzulketen sistemaren eragina, ordainketen geroratzeak eta itzulketak lehenago bideratu izana. Hala ere, adierazi behar da jaitsiera horiek leundu zirela aurreko hilabeteetako emaitzen aldean, automobilen salmentak areagotu zirelako.

Azkenik, zerga bereziak ez ziren salbuespen bat izan joera orokorrean eta hauek ere urte arteko tasa negatiboak (%-3,2) jaso zituzten, nahiz eta tamaina txikiagoak izan. Zehazkiago adierazita, hidrokarburoen diru bilketa %4,2 murriztu zen, baina ondorengo hilabeteetan hoberantz egingo du, gasolinaren eta gasolioaren gaineko zergak igo direlako. Argindarrak ere diru bilketa gutxitu zuen, kontsumoaren hobekuntza tarifen igoera txikiagoak konpentsatu zuelako. Aitzitik, tabakoaren diru bilketak balio positiboak izan zituen, paketearen salneurria igo zelako.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2009ko urtariletik urrira)

21. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2008	2009	Aurrekon. %	09/08 aldak. %
PFEZ	3.307.488	2.831.879	63,4	-14,4
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.453.049	3.297.781	74,5	-4,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	251.776	221.321	62,5	-12,1
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	52.221	61.767	88,1	18,3
- Ondare irabazien atxikipenak	26.993	14.371	34,8	-46,8
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	134.418	124.010	70,3	-7,7
- Kuota diferentzial garbia	-610.970	-887.371	147,1	-45,2
Sozietateen gaineko zerga	1.625.475	1.134.742	64,5	-30,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	251.776	221.321	62,5	-12,1
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	52.221	61.767	88,1	18,3
- Ondare irabazien atxikipenak	26.993	14.371	34,8	-46,8
- Kuota diferentzial garbia	1.294.484	837.282	64,7	-35,3
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	151.075	88.163	51,5	-41,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	67.362	61.708	70,8	-8,4
Ondarearen gaineko zerga	181.145	49.201	1076,6	-72,8
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.332.544	4.165.694	64,2	-21,9
BEZaren bertoko kudeaketa	2.479.006	1.882.144	50,3	-24,1
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	154.376	123.762	53,8	-19,8
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	97.972	79.801	59,3	-18,5
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	41.635	29.242	53,7	-29,8
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.223.999	1.185.278	74,7	-3,2
Hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	40.641	39.459	70,2	-2,9
Aseguru sarien gaineko zerga	60.101	56.581	68,0	-5,9
Iraungitako zergak	165	---	---	-99,9
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.765.603	3.816.133	64,8	-19,9
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	90.183	66.517	59,8	-26,2
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	9.520.621	7.628.478	61,1	-19,9
BEZaren doikuntza	760.243	513.037	42,2	-32,5
Zerga berezien doikuntza	-92.534	-93.171	82,4	-0,7
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	10.188.330	8.048.344	59,2	-21,0


Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

Aurtengo hirugarren hiruhilabeteko ezaugarri behinenetako bat hazkunde globalaz zein finantza sistemaren osasunaz zegoen ziurgabetasuna neurri batean argitu izana da. Hala eta guztiz ere, arriskua oso handia da oraindik eta banku zentral nagusiek moneta eta zerga politika hedakorrak bultzatzen jarraitu dute, finantza merkatuetan likidezia eta ekonomiaren susperraldia bermatzeko

Banku zentraletako erreferentzia tasak
Ehunekoak

12. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.

Horiek horrela izanda, banku zentralak esku hartzeko interes tasak inoizko maila apalenetan utzi zituzten eta mugagabeko likidezia eman zuten. Ez Europako Banku Zentralak ez Erreserba Federalak ez zuen mugimendurik egin interes tasetan eta ezohiko neurriak mantentzea erabaki zuten, bereziki zor-agiriak jaulkitzera edo berrerosteko zedulen lagatzera zuzenduta. Neurri horien bitartez, une jakin batean beharrezkoa izango balitz, likidezia gutxitu dezakete, merkatua egonkortzeko. Hala ere, eta azken hilabeteetan susperraldiaren zantzuak agertu direnez eta defizit publikoak oso bizkor gehitu direnez, moneta agintariak pizgarri horiek kentzeko aukeraz hasi dira hausnartzen. Agintari gehienek interes tasak maila txikietan susperraldia errotu arte mantenduko dituzten bitartean, dagoeneko lehen gehikuntzak gauzatu dira. Izan ere, Norvegiako banku zentralak puntu laurden batean igo zuen bere interes tasa, %1,5ean kokatu arte. Orobat, Indiak, Israelek eta Australiak ere igoerak onartu zituzten. Australiak hiru igoera jarraituak erabaki ditu diruaren prezioa %3,75ean kokatu arte, azken hilabeteetan hasi den susperraldiaren ondorioz prezioen gorakada gelditzeko.

Erreserba Federalak eta Japoniako Banku Zentralak epe laburrean interes tasak ez dutela aldatuko aurreikusten da, lehendabizi neurri ezohikoak kendu beharko lituzketelako, gero likideziaren sartzeak urratsez urrats gutxitu beharko lukete eta, azkenik, interes tasak igo. Dena dela, Europako Banku Zentralak lehenago erabaki dezake tasak igotzea. Izan ere, abenduaren hasieran eta hirugarren hiruhilabeteko emaitza onak egiaztatu ondoren, EBZk likidezia emateko ezohiko neurri batzuk eta %1eko tasa finkoan ematen dituen mugagabeko funtsak kentzen hasiko zela iragarri zuen. Era berean, mugimendu horiek ez zutela diruaren prezioa aldatuko oso garbi zehaztu zuen, azken hori %1ean egonkor mantenduko duelako.


Dibisen merkatuan, gorakaden eta beherakaden etengabeko jarraipena leundu zen eta euroak oso nabarmen areagotu zuen bere balioa, bereziki dolarraren, libera esterlinaren eta dolarrari lotuta dauden Asiako diru nagusien aldean. Izan ere, euroa libera esterlinaren baliora hurbildu zen berriro urrian eta 0,94 libera lortzen ziren euro baten truke. Orobat, azaroaren 25ean euro baten truke 1,5140 dolar eskuratu ziren, ordura arte inoiz jaso den kopururik handiena. Urtea hasi zenetik, Europako diruak %10 baino gehiago irabazi du dolarraren aldean.

Ekonomia suspertzen ari den seinaleek, interes tasa apalek eta dolarra erreserbako diru gisa nazioartean onartua izaten jarraituko ote den zalantzek inbertitzaileak errentagarritasun handiagoko merkatuak bilatzera bultzatu zituzten. Horren ondorioz, dolarrak nabarmen galdu zuen bere balioa. Billete berdearen balio galerak hamaika hilabetez jarraian gertatu da eta AEBetako gobernua ez ezik ekonomia nagusietakoak ere kezkatzen ditu. Japoniak ere kezka beratzen dio yenaren balio irabaziarri, azaroan 86,76 yen ematen baitziren dolar baten truke, 1995etik inoiz jaso den baliorik handiena baita. Beste aldetik, Europako Banku Zentraleko presidente Trichetek dolar indartsu bat izateko beharra aipatu zuen, Europako merkatuei eta enpresa esportatzaileei laguntza emateko.


Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

13. irudia


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria : Espainiako Bankua.

Finantza sisteman dagoen likideziaren zati handi bat burtsa merkatuetara igaro zen, martxoan jasotako gutxieneko balioen ondoren goranzko joerari eutsi baitiote. Bilakaera hori gorabehera handien leuntzearen, datu makroekonomiko hobeak argitaratu izanaren eta mozkinen igurikimenean goranzko berrikusketaren ondorioa da. Aurreko guztiaren ondorioz, herrialde aurreratuak indize behinenek %15aren inguruko balioa irabazi zuten, aurreko lerroan garapen bidean dauden herrialdeak zeudelarik, %50 baino gehikuntza tasa handiagoak lortu zituztelako. Zehazkiago adierazita, azaroan IBEX-35 indizea 12.000 puntuetara hurbildu zen, Lehman Brothers enpresak porrot egin zuenetik jaso duen baliorik gorena baita. Hala eta guztiz ere, eta errenta aldakorrek merkatuek balio irabazi handiak izan zituzten arren,

oraindik begi bistakoa da susperraldiaren erritmoaz dagoen ziurgabetasun handia. Horrela geratu zen islatuta Euroguneko kotizazioetan, beren mailak gorantz egin bazuen ere, 2008. urtean batez beste kotizatu zuenaren %25aren inguru beherago mantendu ziren.


Bankuen arteko gordailuen interes tasek jaisten jarraitu zuten azken hilabeteetan. Hain zuzen ere, 12 hilabeterako euriborra %1,239ra murriztu zen azaroan, berriro inoizko baliorik apalena delarik. Beste aldetik, 3 hilabeterako euriborra %0,72ra jaitsi zen. Euriborrak metatu duen beherakada maileguen kostuetara igaro zen, baina ez osorik, zeren eta arrisku sariak maila altuetan mantendu baitziren berankortasunaren gehikuntzaren ondorioz.

Interes tasen bilakaera


14. irudia

%

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.


Finantza erakundeek likidezia gehiago izan zuten arren, diru erabilgarri horrek ez zuen familiei eta enpresei emandako kreditu gehitu. Aldi berean, familiek eta enpresek finantzaziorako eskaria murriztu zuten aurrezkia sustatzeko eta beren kontuak onbideratzeko. Batzuek eta besteek zuten zorpetze maila handiak doikuntza garrantzitsua eskatzen zuten. Halaber, finantza erakundeek kaudimen eta likidezia ratioak hobetze aldera bizi zuten zorgabetzeak arlo pribatuari bideratutako kreditua %-4,5 jaitea eragin zuten, gutxienez azken hogeita hamar urtean izan den beherakadarik handiena baita. Beste aldetik, berankortasunak gora egin zuen berriro, krisia hasi zenetik finantza erakundeek arriskua zuhurtasunez kudeatzeko ahalegin handia egin duten arren. Hain zuzen ere, berankortasuneko ratioa %2,75era igo zen eta estaldurako ratio orokorra, kobraezinak estaltzeko dauden funtsak biltzen baititu, %77,24ra

murritzitu zen. Ehuneko hori oso maila altuan dago oraindik, baina aurreko urteko epealdi berean zegoen %124,15etik urrun.


Kreditu eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

15. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, gordailu pribatuek moteltzeko joera leuna eta etengabeari eutsi zioten, neurri handi batean, gordailu horien truke lortzen den mozkina txikiagoa delako. Dirua merkatu izanak eta errentagarritasunaren jaitsierak pentsarazten dute gordailuen ordainketak beheranzko joera horretan sakonduko duela, dagoeneko bost hiruhilekoz jarraian moteldu baita.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Testuinguruarentzako aurreikuspenak

Azken hilabeteetan ekonomia garatu nagusietarako hazkunde aurreikuspenak gorantz zuzendu badira ere, 2009. urtea historiara igaroko da munduko bigarren gerratik munduko hazkundeak bizi duen urterik okerreina izan delako. Consensus Forecastek argitaratu dituen datuek erakusten dute 2009. urterako gaur egun aurreikusten den moteltzea duela sei hilabete espero zena baino leunagoa dela. Era berean, 2010. urterako orain aurreikusten den susperraldia biziagoa izango da. Hala eta guztiz ere, aurreikuspen horien konfiantza tarteak oso zabalak dira eta horrek adierazten du ziurgabetasun handia eta arrisku larriak daudela. Ekonomia globalaren bilakaera herrialde guztien ekintzek baldintzatuko dute.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

22. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010
Munduko Ekonomia	2,0	-2,2	2,8	4,9	1,4	2,5
AEB	0,4	-2,4	2,7	3,8	-0,4	2,0
Kanada	0,4	-2,4	2,5	2,4	0,3	1,7
Japonia	-0,7	-5,7	1,4	1,4	-1,2	-0,9
Eurogunea	0,6	-3,8	1,2	3,3	0,3	1,1
Europar Batasuna	0,8	-4,0	0,9	3,4	0,8	1,3
Alemania	1,3	-4,9	1,5	2,6	0,3	0,9
Espainia	0,9	-3,7	-0,5	4,1	-0,3	1,3
Frantzia	0,3	-2,1	1,2	2,8	0,1	1,1
Herbehereak	2,0	-4,3	0,9	2,5	1,1	0,8
Italia	-1,0	-4,8	0,7	3,4	0,8	1,4
Erresuma Batua	0,6	-4,5	1,2	3,6	2,1	2,0
Asia eta Ozeano Barea	3,8	1,1	5,1	4,6	0,7	1,9
Ekialdeko Europa	4,2	-5,7	2,3	11,0	7,2	6,2
Amerika Latinoa	4,2	-2,2	3,4	8,5	5,9	6,7

Iturria: Consensus Forecast (2009ko azaroa).


Munduko ekonomiak narriadura azkarra nozitu du eta datozen hilabeteetan epe laburreko hazkunde bizkor suspertuko dela aurreikusten da, baina krisiaren eraginak iraungo du eta epe ertaineko eta luzeko hazkunde potentziala murriztuko duela uste da. Ekonomiaren etorkizuneko bilakaerak finantza krisiak eta berarekin batera gertatu den kapitaleko galerak utzi duten lasta eraman beharko du. Halaber, susperraldia motelduko duten beste alderdi batzuk dira krisi honetako desorekak aurreko atzeraldietakoak baino handiagoak izatea eta ekonomia kreditu murrizteko eta finantza publikoko behar handiko egoera batean egotea. Gastu publikoa, kasu batzuetan, oso handia da eta etorkizunean eragin negatiboa izan dezake defizit publikoan.

BPGren bilakaera eremuka

16. irudia


Urte arteko aldakuntza tasak

Eurogunea




2001 2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010

AEB




2001 2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010

Japonia



2001 2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010

Txina



2001 2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010


Iturria : NDF. 2009ko urriko aurreikuspenak.

Oraingo eta etorkizuneko igurikimenak aztertzen dituzten ekonomia eragileen konfiantza neurtzen duten adierazleak batez beste historikoaren azpian daude, baina beren joerak egiaztatzen du baikortasuna hasi dela merkatuetara itzultzen eta aurreikuspenak hobetzen ari direla. Hala ere, arriskuen mehatxua ez da desagertu. Finantza merkatuak normaltzeko bidean daude, baina denbora luzea beharko da kredituak berriro arintasunez mugi daitezen.

2009. urterako, hazkunde positiboa izango duen eremu bakarra Asia eta Ozeano Barea osatzen dutena da. Gainontzeko eremuek tasa negatibotan amaituko dute urtea. 2010. urterako, ordea, ikuspegi baikorragoa dago eta herrialde guztiek ekonomia hazkundera hobetuko dute. Paradoxikoki, krisia AEBetan hasi bazen ere, atzeraldiaren eragin lazgarriena Europar Batasunean biziko da, beraren gehikuntza erritmoa estatubatuar ekonomiarena baino apalagoa izango baita. Ekonomia datozen hilabeteetan suspertuko delako ideia oso gertagarria da, baina baita europar ekonomia gero geldituko delako arriskua ere.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

17. irudia



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Espainian ere, jaitsiera erritmoa gero eta txikiagoa da eta une txarrena atzean geratu da. Abaguneko adierazleak gutxiago ari dira okertzen eta pentsatzekoa da 2010eko bigarren seihilekoan hazkunde tasa positiboetara hurbilduko direla. Baina krisitik irtetea ez da lan erraza izango. Kontsumo pribatua ahul haziko da, familien errentek izan duten galeraren ondorioz. Administrazio publikoetako kontsumoari dagokionez, defizit publikoa oso handia da eta gastua handitzen jarraitzeko aukerak gero eta urriagoak dira. Inbertsioaren atalean, etxegintzak

ez dirudi suspertzeko zantzuak eskainiko dituenik eta ekoizteko inbertsioan ere zaila izango da susperraldirik lortzea lanean jarraitzeko nahiko ahalmena dagoelako, enpresetan zabaltzeko inbertsio berririk egiteko beharrik gabe. Hobekuntza garbia erakutsiko duen aldagaia esportazioak izango dira, Espainiako merkataritza bazkideen ekonomietan susperraldia gauzatuko delako.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2009ko azaroa) 23 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoan eta bestean	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
AFI	-3,6	-0,6	-5,3	-1,4	5,2	2,5	-15,6	-6,8	-11,4	-7,4	-24,2	-7,1
BBVA	-3,8	-1,2	-5,4	-1,7	4,1	1,1	-15,3	-7,5	-10,6	-5,2	-26,7	-12,2
Caixa Catalunya	-3,7	-0,5	-5,0	-0,8	5,1	2,4	-15,6	-4,5	-10,9	-4,5	-21,9	-4,5
Caja Madrid	-3,7	-1,1	-5,3	-3,7	5,0	3,6	-15,8	-8,4	-11,1	-5,9	-24,7	-12,0
Cemex	-3,7	-1,3	-5,2	-1,3	5,0	0,6	-15,8	-8,6	-11,3	-9,8	-21,8	-7,2
CEEM-URJC	-3,7	-0,9	-4,9	-0,8	5,1	2,1	-15,2	-6,3	-12,6	-6,0	-23,1	-9,0
CEPREDE-UAM	-3,6	-0,2	-5,3	-1,4	5,2	4,0	-15,4	-3,3	-10,8	-1,4	-26,6	-5,8
FUNCAS	-3,6	-0,5	-5,1	0,1	5,1	2,2	-15,7	-7,9	-11,3	-9,5	-24,5	-4,4
ICAE-UCM	-3,7	-0,9	-5,1	-1,1	5,1	2,0	-15,8	-6,8	-11,5	-8,5	-24,1	-2,7
IEE	-3,7	-1,1	-4,0	0,0	4,5	3,0	-15,4	-9,2	-15,0	-9,0	-20,0	-12,0
IFL-UC3M	-3,7	-0,9	-5,2	-2,7	5,4	4,8	-15,3	-8,9	-10,8	-6,7	-24,4	-14,3
Intermoney	-3,5	1,0	-4,9	0,6	5,2	3,4	-15,5	-3,6	-11,1	-4,6	-24,0	2,8
La Caixa	-3,7	-0,4	-5,1	-0,5	5,0	1,5	-15,4	-5,8	-11,6	-7,0	-23,9	-7,5
Repsol	-3,7	-0,3	-5,0	0,1	5,4	3,7	-15,5	-6,3	-11,2	-8,1	-23,9	1,6
Santander	-3,6	-0,4	-5,0	-0,4	5,2	3,5	-15,6	-6,6	-11,3	-5,7	-24,0	-8,1
Batez bestea	-3,7	-0,6	-5,1	-1,0	5,0	2,7	-15,5	-6,7	-11,5	-6,6	-23,9	-6,8
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2009-09)	-3,6	-0,3	-4,1	-0,4	2,9	1,8	-14,2	-4,7	---	---	---	---
Esp. Bankua (2009-04)	-3,0	-1,0	-3,1	-0,4	3,5	2,1	-15,1	-10,3	-12,9	-11,6	-24,3	-12,6
E. Batzord. (2009-10)	-3,7	-0,8	-5,2	-0,5	4,3	1,7	-15,6	-8,4	-11,4	-10,4	-25,4	-6,0
NDF (2009-10)	-3,8	-0,7	-5,1	-0,6	4,3	0,4	-16,0	-6,8	---	---	---	---
ELGE (2009-11)	-3,6	-0,3	-5,1	-1,1	---	---	-15,3	-5,3	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2009ko azaroa)

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BIA)	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
AFI	-6,4	-1,9	-12,5	1,0	-18,9	-4,5	-0,3	0,9	-6,7	-2,8	18,0	19,7
BBVA	-6,8	-2,9	-13,9	0,5	-20,4	-4,9	-0,4	0,9	-6,7	-3,3	18,1	20,1
Caixa Catalunya	-6,3	-1,0	-13,1	-1,8	-18,8	-2,9	-0,3	1,1	-6,6	-0,7	17,8	17,8
Caja Madrid	-6,3	-3,3	-12,7	2,3	-18,9	-5,4	-0,3	0,9	-6,6	-2,3	18,0	19,9
Cemex	-6,5	-2,7	-12,9	1,5	-19,0	-3,3	-0,4	1,1	-8,5	-3,0	20,0	21,0
CEEM-URJC	-5,8	-1,6	-15,1	1,0	-19,9	-1,8	-0,4	1,1	-6,7	-2,2	18,3	20,0
CEPREDE-UAM	-6,2	-0,7	-12,1	1,6	-19,0	-0,9	-0,2	1,8	-6,6	-1,8	18,0	19,6
FUNCAS	-6,0	-1,3	-12,3	4,2	-18,5	0,7	-0,3	1,4	-6,8	-2,8	18,0	19,4
ICAE-UCM	-6,1	-1,9	-12,3	5,3	-18,6	1,3	-0,2	1,5	-6,9	-3,3	18,2	21,4
IEE	-6,1	-2,2	-10,0	-2,0	-15,0	-5,0	-0,2	1,2	-6,5	-2,0	18,5	20,0
IFL-UC3M	-6,4	-3,2	-12,7	1,7	-18,7	-5,8	-0,3	1,7	-6,9	-3,0	18,3	20,9
Intermoney	-5,9	0,2	-12,1	6,1	-18,3	2,6	-0,4	1,8	-6,2	-0,4	17,9	18,2
La Caixa	-6,0	-1,6	-12,3	2,1	-18,0	-1,9	-0,3	1,4	-6,7	-2,3	18,1	20,2
Repsol	-5,9	-0,8	-11,6	5,2	-17,6	1,6	-0,3	1,6	-6,3	-2,5	18,0	19,5
Santander	-6,0	-1,0	-12,2	3,5	-18,2	0,5	-0,3	1,5	-6,9	-1,9	18,1	19,8
Batez bestea	-6,2	-1,7	-12,5	2,1	-18,5	-2,0	-0,3	1,3	-6,8	-2,3	18,2	19,8
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2009-09)	-5,6	-1,0	-16,2	2,1	-20,5	-0,6	---	---	-5,9	-1,7	17,9	18,9
Esp. Bankua (2009-04)	-5,3	-2,4	-8,9	2,9	-15,1	-2,6	0,2	1,5	-5,2	-2,1	17,1	19,4
E. Batzord. (2009-10)	-6,3	-1,8	-13,0	1,3	-20,0	-2,7	-0,4	0,8	-6,6	-2,3	17,9	20,0
NDF (2009-10)	---	---	---	---	---	---	-0,3	0,9	---	---	---	---
ELGE (2009-11)	-6,2	-1,6	-13,5	5,5	-20,1	-0,4	-0,4	0,8	---	---	18,1	19,3

Iturria: Funcas.

Higiezinaren merkatuan burbuila nozitu duten beste herrialdeetan prezioen doitzera oso bizkor gertatu bada ere, Espainian prezioen zurruntasunak eraikuntzaren onbideratzeari kalte egin dio. Beste aldetik, jarduera adar horren berrantolaketa atzeratzen ari da, 2009. urtean saldu

gabeko etxebizitzaren kopuruak igotzen jarraitu duelako. Eraikuntzan desiratzen den doikuntza hori behar-beharrezkoa da ekonomiaren susperraldi iraunkorraz hitz egin ahal izateko.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2009ko azaroa)

25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
BPG	-3,0	-3,6	-1,4	0,0	0,3	0,5	-0,2
Kontsumo pribatua	-4,9	-5,3	-3,1	-1,4	-0,9	-0,1	-1,4
Kontsumo publikoa	4,6	5,2	4,3	4,1	3,8	3,6	4,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	-13,4	-15,4	-7,7	-4,0	-1,4	0,3	-3,3
- Inbertsioa ekipamenduan	-24,5	-26,6	-12,2	-7,0	-2,1	-1,3	-5,8
- Inbertsioa bestelakoetan	-12,2	-14,1	-9,3	-6,6	-5,1	-3,7	-6,2
- Inbertsioa eraikuntzan	-8,9	-10,8	-5,5	-2,0	0,0	2,1	-1,4
Barne eskaria	-5,4	-6,2	-2,9	-0,9	0,1	0,9	-0,7
Esportazioak	-2,9	-12,1	0,7	1,6	1,8	2,1	1,6
Inportazioak	-11,2	-19,0	-5,5	-2,4	0,8	3,7	-0,9

Iturria: CEPREDE.

Zalantzarik gabe, Espainiako ekonomiaren arazo nagusia krisiak lan merkatuan izan duen eragin handia da. Espainiako langabezia tasa oso altua da eta kontsumoa izugarri murriztu du. Lanpostu asko desagertuko direla aurreikusten da eta lan merkatuan parte hartzen dutenen kopurua gutxiago hazteak bakarrik saihestu dezake langabezia tasa maila altuagoetara ez iristea. Lan merkatu espainiarraren egoera oso larria da eta, beste atzeraldiak alderatuta, inoiz baino epealdi gehiago ari dira metatzen lanpostuak galtzen, oraingoz joera horrek beheko muga ukitu duela iragartzeko zantzurik hauteman gabe.



Ekonomiaren hazkundera baldintzatu dezakeen beste alderdi bat zergen igoera da. Espainian, balio erantsiaren zerga igotzeko tarterik badago, Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, baina horrek ez du bermatzen defizit publikoa zuzenduko denik. Diru bilketak nolabaiteko egonkortasuna erakusten du zergak aldatzen direnean. Beraz, zergen igoera, diru bilketaren terminoetan, baliagarria izan dadin, beharrezkoa izango zen diru bilketaren eraginkortasuna hobetzea. Beste aldetik, BEZaren igoerak, ziur aski, prezioarekin sentsibiltate handiagoa erakusten duten ondasunen kontsumoa murriztuko du.

Gaur eguneko egoera ekonomikoan, hainbat desoreka zuzentzeko beharraz eta ekoizkortasuna hobetuko duten egiturazko erreformak egiteaz hitz egiten da. Neurri horiek bereziki lan merkatuan, hezkuntza sisteman, berrikuntzaren sustapenean eta erakundeen kalitatean zein ekonomiaren arautegian fokatu beharko dira. Erreforma horiek beharrezkoak dira atzeraldia gainditu ondoren hasiko den ziklo berria iraunkorra izan dadin.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak

18. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : INE eta CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiarako egin dituen 2009 eta 2010eko aurreikuspenak eguneratu ditu. 2009ko hirugarren hiruhilabeteko kontu ekonomikoetako datuak sartu ondoren, estimazio berriek barne produktu gordina 2009an, urteko batez bestean, %-3,4 jaitsiko dela aurreikusten dute, hots, aurreko hiruhilekoan argitaratutako tasa baino bi hamarren gutxiago. Hala ere, 2010. urterako zuzenketa goranzkoa izan da eta hazkundera %0,1ean kokatzen da. Tasa hori hutsala da, baina susperraldiaren etorrera iragartzen du. Izan ere, 2010eko bigarren seihilekotik aurrera inflexio gunea gauzatuko da eta urte arteko lehen tasa positiboak agertuko dira. EAEko ekonomiaren testuinguruarentzat argitaratu diren aurreikuspen hobeak daude 2010erako espero den hobekuntzaren oinarrian.

Kontsumo pribatuak hobera egingo du emeki-emeki, baina langabezia tasak bere ahalmena hazteko mugatuko du. Langabeziak errenta erabilgarria gutxitzen du, kontsumitzaileen igurikimenak moteltzen ditu eta, zuhurtasunez, aurrezki tasak igotzen ditu. Beste aldetik, kontsumo publikoa ezin da etengabe hazi eta ezinbestekoa da defizit publikoa kontrolatzea Europako bazkideekin dauden konpromisoak betetzeko. Administrazioak ezarri dituen sustapen neurriek ekonomiaren narriadura galgatzeko lagundu dute, baina eragileek zalantzak dituzte pizgarriak kentzeko une egokienaz.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2009ko azaroa)

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
BPG	-2,5	-3,6	-4,0	-3,5	-3,4	-1,9	-0,3	0,8	1,6	0,1
Azken kontsumoa	-2,0	-2,9	-2,8	-2,5	-2,6	-1,8	-1,0	-0,1	1,3	-0,4
Kontsumo pribatua	-3,7	-4,6	-4,3	-3,9	-4,1	-3,0	-1,9	-0,7	1,0	-1,2
Kontsumo publikoa	4,5	3,7	3,0	3,0	3,6	2,9	2,9	2,5	2,4	2,7
Kapital eraketa gordina	-6,8	-9,1	-8,3	-7,0	-7,8	-4,6	-0,5	0,8	1,2	-0,8
Barne eskariaren ekarpena	-3,5	-4,8	-4,5	-4,0	-4,2	-2,6	-0,8	0,2	1,1	-0,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,9	1,2	0,5	0,5	0,8	0,7	0,6	0,6	0,5	0,6
Lehen arloa	17,2	9,9	3,5	-5,3	6,3	17,2	9,9	7,8	5,6	10,1
Industria	-8,6	-10,0	-11,3	-9,3	-9,8	-5,2	-0,9	1,5	4,1	-0,1
Eraikuntza	-4,8	-5,2	-4,9	-4,5	-4,9	-3,6	-3,6	-3,0	-1,5	-2,9
Zerbitzuak	0,5	-0,5	-0,6	-0,6	-0,3	-0,2	0,4	0,8	1,0	0,5
Balio erantsi gordina	-2,4	-3,6	-4,0	-3,6	-3,4	-1,9	-0,3	0,7	1,6	0,0
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-3,6	-4,0	-3,8	-3,3	-3,7	-1,1	-0,2	0,7	1,4	0,2
BPGren deflatoarea	0,9	0,2	-0,1	0,2	0,3	0,9	1,1	1,6	1,6	1,3
Enplegua	-2,9	-4,0	-3,8	-3,3	-3,5	-2,6	-1,5	-1,0	-0,3	-1,3
Langabezia tasa	7,7	7,8	8,3	8,8	8,2	9,2	9,4	9,6	9,6	9,5


Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekipamenduan eginiko inbertsioa txikia izango da eta oso astiro suspertuko da, enpresen ekoizpen ahalmena, gaur egun ekoizten ari direna kontuan hartuta, altua delako. Igurikimenek eta errentagarritasunak igo behar dute inbertsio berrietan pentsatzen hasteko. Etxebizitza librean kopuruak pentsarazten du etxegintza nekez haziko dela. Laburbilduz, ekonomia eragileek, enpresek, gobernuak eta kontsumitzaileek beren balantzeak orekatu behar dituzte eta zorpetzea murriztu.

Inportazioak areagotuko dira barne eskariaren suspertze arinari esker, baina esportazioak gehiago haziko dira Europako bezeroen hobekuntzaren ondorioz, herrialde horietarako susperraldi biziagoa iragartzen baita. Hori horrela izanda, kanpo arloak ekarpen positiboa egingo dio BPGren hazkundeari.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

19. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizpen adarren ikuspegitik, industriak jaitsiera motelduko duela aurreikusten da, baina aldakuntza tasa negatibotan jarraituko du 2010eko bigarren erdia arte. Arlo horretako etorkizuneko bilakaera EAEko barne eskariaren susperraldiak eta beraren industria ekoizkinak inportatzen dituzten merkatu nagusienek baldintzatuko dute. Zerbitzuei dagokienez, hazkunde ahula erakutsiko duela aurreikusten da, geldotasun orokorrak kutsatuta. Eraikuntzak aldakuntza tasa negatiboak jasoko ditu aurreikuspen epealdi osoan zehar eta eskaintzaren eta eskariaren arteko behar den doikuntza bideratzen eta sektorearen antolakuntza berritzen jarraituko du.

Enplegu galerak hazkunde egonkorren itzulera atzeratuko du. Aurreikuspen berriek EAEko ekonomian lanpostu asko galduko direla estimatzen dute. Hain zuzen ere, 2009. urterako aurreikuspenek 35.000 lanpostu inguru galduko direla zehazten dute. 2010. urtean ere enplegua galduko da, aurreko urtean baino gutxiago, baina oraindik 12.000 inguru izango dira. Lan

merkatuak urte horietan izango duen narriadura langabezia tasaren bilakaeran islatuko da, aurreikuspen honen arabera gorantz egingo baitu, 2010eko batez bestean %9,5ean kokatu arte.

Taula makroekonomikoaren aurreikuspen hauen oinarrietan ziurgabetasun eta baldintza asko daude oraindik, eta hainbat suposamendu egin dira nazioarteko testuinguruaz, prezioen mailaz, truke tasaz eta interes tasaz.

Oinarrizko eszenategiak ez dio probabilitate asko ematen inflazio altuko testuinguru bati. Taula makroekonomiko berrian beherantz zuzendu dira prezioen aurreikuspenak epealdi osorako eta inflazioa 2010. urtea aurrera joan ahala zerbait igoko dela aurreikusi da. Munduko ekonomiarako espero den gorakadak eta ekoizpenaren suspertzeak lehengaien eskaera areagotuko da eta, horren ondorioz, prezioek gora egingo dute. Prezio apaleko bilakaera hori Eurogunea osatzen duten herrialde guztietara hedatu da eta horregatik EBZren kezka nagusia gaur egun ez da inflazioa kontrolatzea. Inflazio txikiko testuinguru horretan, ez da espero moneta agintariek interes tasak asko aldatzea. Gaur egun interes tasak dauden mailan egonda, balizko mugimendu bakarrak goranzkoak dira eta normaltzeko prozesu hori oso astiro gertatuko da.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2009ko azaroa)

27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
AEB	-0,1	-1,1	-1,6	1,5	-0,4	2,5	2,2	1,9	1,2	1,9
Eurogunea	1,0	0,2	-0,4	0,5	0,3	1,3	1,4	1,5	1,6	1,4
Espainia	0,5	-0,7	-1,1	0,1	-0,3	1,3	1,7	1,7	1,9	1,7
EAE	0,9	0,0	-0,3	0,4	0,3	1,8	2,0	2,0	2,2	2,0

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).


Euroa estatubatuar txanpona baino indartsuagoa izango da oraindik. Hala ere, dolarrak balioa irabaziko duela espero da, AEBetako ekonomiaren susperraldia baieztatzen den heinean. Munduko bi dibisa nagusiek bizi duten egonkortasuneko aldia bertan behera geratuko da AEBek ekonomiaren hazkundea sendotzen dutenean. Hori horrela izanda, euroak indarra galduko du dolarraren aldean 2009an, baina bereziki 2010ean. Hain zuzen ere, batez beste euro baten truke 1,39 dolar ordainduko dira 2009an eta 1,36 dolar 2010ean.

Edozein modutan, EAEko ekonomiaren bilakaerak kreditu merkatuen zurruntasunari aurre egin beharko dio, susperraldirako bidean oztopo garrantzitsua baita. Finantza erakundeek arazoak dituzte gordailuak lortzeko. Horrek eta berankortasunaren igoerak kapitaleko beharra areagotu dute. Krisiaren irteera esportazioen igoeraren eskutik etor daiteke, inbertsioa hobetuko lukeelako, enplegua igoko lukeelako eta, ondorioz, kontsumoa ere bai. Hala ere, kreditua lortzea zaila bada, lehiakortasuna galtzen bada eta eragileak oso zorpetuta badaude, barne eskariak arazoak izango ditu suspertzeko eta ekonomiaren susperraldia astiro eta asko kostata gauzatuko da. Halaber, hazkunde potentziala jaitziko da.

KPIren bilakaera

20. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat, INE, Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).